

# 2018-2024 ALDIKO AZKEN EBALUAZIOAREN TXOSTENA

## GARAPENERAKO LANKIDETZAREN IV. GIDA PLANA

2024KO AZAROA



LANKIDETZARAKO ETA  
ELKARTASUNERAKO  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN Y  
SOLIDARIDAD



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

# AURKIBIDEA

<b>0. Siglak eta akronimoak</b>	<b>2</b>
<b>1. Sarrera</b>	<b>3</b>
<b>2. Ebaluazioaren garapena</b>	<b>4</b>
<b>3. Ebaluazioaren emaitzak</b>	<b>8</b>
<b>3.1 Baliabideak</b>	<b>8</b>
3.1.1 Aurrekontu-esparrua	
3.1.2 Neurri positiboak	
3.1.3 Banaketa tresnen artean	
3.1.4 2018-2023an emandako funtsen azterketa	
<b>3.2 Prozesua</b>	<b>19</b>
3.2.1 Garapenerako politiken koherentzia	
3.2.2 Arlo estrategikoak	
3.2.3 Tokikoa-globala	
3.2.4 Giza eskubideak	
3.2.5 Generoa	
3.2.6 Afrika	
3.2.7 Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk	
3.2.8 Ezagutza eta ikaskuntza sortzea	
3.2.9 Gizarte-eraldaketarako hezkuntza	
3.2.10 Lehenetasunak: zeharkakoak eta geografikoak	
3.2.11 Komunikazioa	
3.2.12 Plangintza, jarraipena eta ebaluazioa	
3.2.13 Araudiaren berrikuspena	
3.2.14 Kudeaketa	
<b>3.3 Erdiespena</b>	<b>27</b>
3.3.1 1. helburua: datu kuantitatiboak	
3.3.2 1. helburua: datu kualitatiboak	
3.3.3 2. eta 3. helburuak: IV. Gida Planaren ikuspegiak	
3.3.4 AUZO(LAN)KIDEAK ekimenaren balioespena	
3.3.5 Ekintzak identifikatzea garapen jasangarrirako politiken koherentziatik abiatuta	
<b>4 Kanpoko adituaren begirada</b>	<b>56</b>
<b>5 2018-2024 aldiko mugarri nagusiak</b>	<b>61</b>
<b>6 Hurrengo plangintzaldirako ikaskuntzak eta erronkak</b>	<b>63</b>
6.1 Diseinua eta ebaluagarritasuna	
6.2 Kudeaketa eta plangintzaren hedapena	
6.3 Etorkizunari begira: erronkak	
<b>7 Eranskinak</b>	
1. eranskina. 2018-2023 aldian emandako ekimenak	
1b eranskina. 2024an emandako ekimenak	
2. eranskina. Prozesu-matrizea eta lehenetsitako adierazle kuantitatiboak	
3. eranskina. Ekintzen katalogoa, garapen jasangarrirako politiken koherentziatik abiatuta	

## 0. SIGLAK ETA AKRONIMOAK

BEK	Garapenerako lankidetzan profesionalak espezializatzeko beka
EHE	Ekintza humanitarioko estrategietarako laguntzak
eLankidetzaz	Lankidetzarako eta Elkartasunerako Agentzia
GBA	Genero-berdintasunaren aldeko aldaketa-prozesuei laguntzak erakundeetan
(H)ABIAN 2030 IV. Gida Plana	Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana 2018-2024
IZE	Dirulaguntza izendunak
JVC 3/2024 Legea	Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa 3/2024 Legea, otsailaren 15koa, lankidetzarako eta elkartasunerakoa
NBE	Gazte kooperanteak Nazio Batuen Erakundearen bulegoetan trebatzeko beka, herrialde txiroetan
GGKE	Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea
PGM	Programetarako laguntzak
PRE	Ekintza humanitarioko proiektuetarako laguntzak
PRO K1	Garapenerako lankidetzaren proiektuetarako laguntzak
PRO K2	Produktzio-garapenerako eta prestakuntza eta laguntza teknologikoko proiektuetarako laguntzak
PRO K3	Garapenerako hezkuntza-proiektuetarako laguntzak
SAR	Garapenerako lankidetzaren <i>Ignacio Ellacuría</i> saria
ZUZ	Zuzeneko dirulaguntzak

# 1. SARRERA

## Ebaluazioaren orientazioa

1. Azken ebaluazioa
2. Barneko prozesua
3. Parte hartzekoa
4. Kanpoko aditu baten begiradarekin
5. Gardentasun-ariketa gisa
6. Ikaskuntza bila
7. Etorkizunari begira,  
3/2024 Legearen esparruan

eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren (aurrerantzean, eLankidetzaren) 2018-2024 aldiko Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Planaren (aurrerantzean, IV. Gida Plana) azken ebaluaziorako txosten hau barneko ebaluazio-prozesu baten emaitza da: lankidetzako hainbat eragilek ekarpenak egin dituzte, haiekin egiaztatu da eta kanpoko aditu baten begirada ere jaso du.

Hasiera batean, IV. Gida Plana 2018-2021 aldirian egitekoa zen. Hala ere, 2021ean egindako bitarteko ebaluazioaren ostean, hiru urtez (2022-2024) luzatu zen.

Luzatzeko arrazoi nagusia zera izan zen, plangintzaldi berria hasi behar zen unean, esku artean dugun gaiari buruzko euskal lege berria prestatzeko prozesuan geundela: gaur egun, lankidetzarako eta elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legea da. Hartan, plangintzen prozesuari eta edukiari buruzko arau zehatzak jasotzekoak ziren, bai eta euskal lankidetzaren antolaketari eta kudeaketari buruzkoak ere. Horregatik, IV. Gida Plana luzatzea erabaki zen, zenbait urtetarako plangintza araudi berriaren esparruan gauzatzeko.

Ebaluatu den aldirari dagokionez (2018-2024) aipatu behar da, ebaluazioa 2024an zehar egin denez gero —hots, Plana gauzatzeko azken urtean—, emandako funtsekin lotutako datu kuantitatiboak, dokumentu honetan jasota daudenak, 2018-2023 aldirari dagozkiola, eta balioespen eta ohar kualitatiboak, berriz, 2018tik 2024ko ekainera bitarte egindakoari dagozkiola. Dokumentuko atal bakoitzean horren inguruko oharrak adieraziko dira.

IV. Gida Planaren azken ebaluazioaren prozesu honetan, bitarteko ebaluazio-dokumentuaren planteamendu eta egitura bera erabiltzen dira, eta gardentasun-ariketa baten modura ulertu dugu, 2018-2024 aldirian egindakoaren berri emateko. Gainera, etorkizunari begirako ikaskuntza-prozesu gisa planteatu dugu azken ebaluazio hau, hurrengo plangintzaldiari begira erabakitzeke ea azken urteotan bultzatu ditugun lan-ildoetan sakondu behar dugun ala berriz planteatu behar ditugun, eta, orobat, identifikatu behar dira 3/2024 Legearen esparruan jorratu beharko ditugun elementuak.

## 2. EBALUAZIOAREN GARAPENA

### Zer metodologia erabili dugu?

- Dokumentuak berrikustea
- Barneko lan-saioak
- Galdetegiak
- Tailerrak
- Kanpoko aholkularitza

### Norekin aritu gara?

- Euskadiko eragile sozialak
- Hegoko entitateak
- Eusko Jaurlaritzako sailak, entitateak eta erakunde autonomoak
- Lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoak
- eLankidetzak

Ebaluazioa aurreko atalean azaldutako beharrei eta orientabideei erantzuteko moduan diseinatu da. Alegia, 2018-2024 aldirian egindakoa azaldu behar dela eta hurrengo plangintzaldiari begira ikasitakoaz jabetu beharra dagoela kontuan hartu da.

Era horretan, zer ikasi den eta zer erronka dauden ohartzeko, hainbat elementu zehaztu nahi izan dira, honetarako lagungarriak izan daitezkeelakoan: (i) hurrengo plangintzaren diseinua hobetzeko, planteamendua, edukia eta jarraipen- zein ebaluazio-sistema direla eta<sup>1</sup>; (ii) plangintzaren inplementazioa ahalbidetu edo mugatu dezaketen palankak eta oztopoak identifikatzeko; eta (iii) hurrengo plangintzaldian sakondu edo gogoeta egin behar den elementuak definitzeko.

Ebaluazio-prozesua 2024ko lehen lauhilekoan abiarazi genuen, urteko memoriak eta 2018-2024 aldiko hainbat plangintza- eta ebaluazio-dokumentu berrikusiz. Jarraian, kontsultak egin genituen eLankidetzaren baitan, IV. Gida Planeko jarduera estrategikoko ardatzen eta beste elementu garrantzitsu batzuen arduradunekin. Era horretan, alde kualitatiboari begira, azken urteotan egindakoaren mapa xehea osatu genuen, eta alde kuantitatiboari begira, 2018-2023 aldirian finantzaturako jarduerari buruzko datu-basea egin genuen.

Horrez gain, lankidetzako eragileen ekarpenak eta balioespenak lortzeko, galdetegi kuantitatiboak eta kualitatiboak egin zitzaizkien: (i) Euskadiko eragile sozialei, (ii) Hegoko entitateei<sup>2</sup>, (iii) Eusko Jaurlaritzako sail, entitate eta erakunde autonomoei, (iv) lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoei eta (v) eLankidetzari. Halaber, bi tailer egin genituen 2024ko uztailean, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal

---

<sup>1</sup>IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazioko gomendioetako bati jarraituz, jarraipen- eta ebaluazio-matrizea sinplifikatu egin da, prozesu-matrizeko adierazle multzoa bereziki. Prozesuaren adierazle multzo kuantitatibo hori hurrengo plangintzaldirako oinarritzko ildo bat izan liteke, dagozkion hobekuntzak egin ondoren.

<sup>2</sup> IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazioko gomendioetako bati jarraikiz, Hegoko tokiko entitate bazkideen ahotsak ere kontuan hartu ditugu. Nahiz eta, beharbada, ariketa mugatua izan den onlineko galdetegiak eginez (eta ez elkarrizketak edo tailerrak), haien ikuspegiak eta ekarpenak txertatzeko lehen urratsa dela uste dugu.

Kontseiluarekin<sup>3</sup> eta eLankidetzarekin, ebaluazio-prozesuan ikasitakoa eta hurrengo plangintzaldirako erronkak identifikatzeko lanean aurrera egiteko.

**01. taula.** Erabilitako metodologiaren sintesia, kontsula egin zaion eragile motaren arabera.

<b>Eragileak</b>	<b>Galdetegiak</b>	<b>Tailerrak</b>
<i>Euskadiko eragile sozialak</i>	Galdetegi kuantitatiboa eta kualitatiboa gai hauei buruz: (i) IV. Gida Planaren kudeaketa eta erdiespena; eta (ii) etorkizunerako begiradak (aldiko lorpenak, 3/2024 Legearen esparruaren baitako erronkak eta hurrengo plangintzaldirako lan-ildoak).	
<i>Hegoko entitateak</i>	Galdetegi kualitatiboa gai hauei buruz: (i) IV. Gida Planaren gaineko ezagutza; eta (ii) etorkizunerako begiradak (munduko erronkak eta euskal lankidetzaren erronkak).	
<i>Eusko Jaurlaritzako sailak, entitateak eta erakunde autonomoak</i>	Galdetegi kuantitatiboa eta kualitatiboa gai hauei buruz: (i) IV. Gida Planaren kudeaketa eta erdiespena; eta (ii) etorkizunerako begiradak (aldiko lorpenak, 3/2024 Legearen esparruaren baitako erronkak eta lehentasunezko ekintzak garapenerako politiken koherentziari begira).	
<i>Lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoak</i>	Galdetegi kuantitatiboa eta kualitatiboa gai hauei buruz: (i) IV. Gida Planaren kudeaketa eta erdiespena; eta (ii) etorkizunerako begiradak (aldiko lorpenak, 3/2024 Legearen esparruaren baitako erronkak eta lehentasunezko ekintzak erakundeen arteko egiturari eta koordinazioari begira).	
<i>Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua</i>	Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluko kide gehienak aipatu diren talde horietako batean daude.	Tailerra 2024/07/11n izan zen Eusko Jaurlaritzaren Bilboko egoitzan, eta 16 pertsonak parte hartu zuten (+ eLankidetzako hiru bideratzaile).  Batik bat baliabide- eta prozesu-matrizearekin lotuta dauden ebaluazio-aurrerapenak sozializatu ziren (14 ardatz aztertu ziren).  Mugarri nagusiak, egiteko dauden gaiak eta etorkizuneko erronkak aztertu ziren 14 ardatzetako bakoitzerako, banaka lehenik eta talde osoan gero, eta ardatzei bulkada emateko palankak eta oztopoak ere aztertu ziren.
<i>eLankidetzak</i>	Galdetegi kuantitatiboa eta kualitatiboa gai hauei buruz: (i) IV. Gida Planaren kudeaketa eta erdiespena; eta (ii) etorkizunerako begiradak (aldiko lorpenak, 3/2024 Legearen esparruaren baitako erronkak eta hurrengo plangintzaldirako lan-ildoak).  Bi galdetegi abiarazi ziren eLankidetzaren baitan: (i) luzea, eLankidetzako langile teknikoentzat eta Zuzendaritza Batzordearentzat, eta (ii) laburra, taldeko gainerakoentzat.	Tailerra 2024/07/12an egin zen eLankidetzan, eta 31 lagunek parte hartu zuten.  Batik bat baliabide- eta prozesu-matrizearekin lotuta dauden ebaluazio-aurrerapenak sozializatu ziren (14 ardatz aztertu ziren).  Mugarri nagusiak, egiteko daudenak eta etorkizuneko lehentasunak aztertu ziren IV. Gida Planaren helburuekin lotuta, eta 14 ardatzetako bakoitzerako. Lehenik banaka eta gero talde osoan. Helburuei eta ardatzei bulkada emateko palankak eta oztopoak ere aztertu ziren.

<sup>3</sup> Dokumentu honetan, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde Arteko Batzordea aipatzen dira; 2024ko otsailera bitarte, honela deitzen ziren, hurrenez hurren: Garapenerako Lankidetzarako Euskal Kontseilua eta Garapenerako Lankidetzarako Erakunde Arteko Batzordea.

Eragileekin erabilitako galdetegi buruz, osorik edo ia osorik bete dituzten galdetegiako informazioa soilik hartu dugu kontuan<sup>4</sup>.

Orobat, aipatzekoa da “ez daki / ez du erantzun (ED/EE)” erantzunak gutxi izan direla. Hala, uste dugu ez dituztela aldatzen galdetegiako erantzunen zentzua eta baliozkotasuna. Hori dela eta, “ez daki / ez du erantzun (ED/EE)” erantzunak ez dira jaso dokumentu honetan galdetegi buruz ageri diren grafikoetan<sup>5</sup>.

**02. taula.** Kontsulta egin zaien eragileen galdetegien bidezko partaidetzaren laburpena.

	Posibleak <sup>6</sup>	Baliozkoak
eLankidetzaren (galdetegi laburra)	23	10
eLankidetzaren (galdetegi luzea)	19	11
<b>GUZTIRA BARRUAN</b>	<b>42</b>	<b>21</b>
Euskadiko eragile sozialak	--	31
Hegoko entitateak	--	48
Lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoak	17	5
Eusko Jaurlaritzako sailak, entitateak eta erakunde autonomoak	53	8
<b>GUZTIRA KANPOAN</b>	--	<b>92</b>
<b>GUZTIRA</b>	--	<b>113</b>

Zenbait kasutan erantzun kopurua txikia izan dela aipatu behar da. Horrek irakurketa mugatu dezake ordezkaritza estatistikoari erreparatuz. Hala eta guztiz ere, ez dugu uste balioa kentzen duenik iritzien aniztasunari begira eta galdetegi erantzuteko denbora hartu dutenen ezagutzari begira.

Galdetegien emaitza kuantitatiboak eta kualitatiboak<sup>7</sup> dokumentu honetan zehar jaso dira, atal hauetan: *3. Ebaluazioaren emaitzak; 5. 2018-2024 aldiko mugarri nagusiak; eta 6. Hurrengo plangintzaldirako ikaskuntzak eta erronkak.*

<sup>4</sup> Amaitu gabeko galdetegiako batzuk pertsona berak geroago bete dituztela ikusi dugu. Horrenbestez, amaitu gabeko galdetegiak lehen kontaktua dira, galderak eta luzera ikusteko, eta, eskuarki, osorik bete dituzte geroago.

<sup>5</sup> “Ez daki / ez du erantzun (ED/EE)” erantzunak grafikoetan islatu ez direnez, erantzun kopuru osoa aldatu egin daiteke eragile berari egindako galdera batetik bestera, horrelako erantzunen kopurua ere desberdina izan daitekeelako.

<sup>6</sup> Eragile sozialaren kasuan, galdetegi datu-base osoari bidali zitzaion eta ahalik eta hedapenik handiena eskatu genuen. Horregatik, ezin da finkatu zenbat eragile sozialek jaso zuten galdetegi. Hegoko entitateen kasuan, ezin da zehaztu zenbat eragileri bidali zitzaion galdetegi, euskal entitateen bitartez bidali baitzen funtsean. Lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoen eta Eusko Jaurlaritzako sail, entitate eta erakunde autonomoen kasuan, galdetegi zenbat pertsonari bidali zitzaion jaso da, ez zenbat erakunderi. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, galdetegi legegintzaldia aldatu zen garaian bidali zen. Neurri batean, erantzun kopuru txikiaren azalpena izan daiteke hori.

<sup>7</sup> eLankidetzaren galdetegi laburraren harira, etorkizuneko begiradei buruzko blokeko erantzunak soilik hartu dira kontuan ebaluazio-dokumentu honetan. Aitzitik, eLankidetzaren galdetegi luzean, bi blokeetako erantzunak aintzakotzat hartu dira: kudeaketa eta erdiespena, eta etorkizunerako begiradak.

Zer ebaluatu dugu?

- IV. Gida Planeko **baliabide**-matrizea + 2018-2023 aldian **emandako funtsen** azterketa.
- IV. Gida Planeko **prozesu**-matrizea – zortzi ardatz estrategikoen eta sei elementu gehigarrien azterketa + **lehenetsitako adierazle kuantitatiboak**.
- IV. Gida Planeko **erdiespen**-matrizea – IV. Gida Planaren **helburuen** erdiespenaren azterketa kuantitatiboa eta kualitatiboa, **ikuspegiekin** lotuta.
- **AUZO(LAN)KIDEAK** ekimenaren barneko balioespena.
- eLankidetzaren eta Eusko Jaurlaritzaren **garapen jasangarrirako politiken koherentziatik** abiatuta garrantzitsuak diren ekintzak identifikatzea.
- **IV. Gida Planaren erlazioa eta erdiespena 3/2024 Legearekin**, kanpoko aditu baten begiradatik.

Azken ebaluazioa egiteko txosten honen edukiak IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazioaren planteamenduari eta egiturari jarraitzen die. Hala, 3. atalean (*Ebaluazioaren emaitzak*), IV. Gida Planaren hiru matrizeen —baliabideak, prozesua eta erdiespena— betetze-maila aztertu da. Horrez gain, bitarteko ebaluazioari gehiturik, hau ere jaso da atal horretan: (i) eLankidetzak bere baitan bideratutako balioespenaren ondorioak, azken urteotan sustatu diren ekimen adierazgarrien edo AUZO(LAN)KIDEAK ekimenaren harira, eta (ii) garapenerako politiken koherentziatik abiatutako eLankidetzak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako ekintzen identifikazioa.

Bestalde, IV. Gida Planaren (eta haren erdiespenaren) eta 3/2024 Legearen arteko bat-etortzeak eta erronkak identifikatu ahal izateko, aditu batekin lan egin dugu eta bere azterketa eskaini digu kanpoko begiradarekin. Zehazki, 4. atalean jaso da: *Kanpoko adituaren begirada*.

Intsumo horiekin (hots, ebaluazio-dokumentuko 3. eta 4. atalekin) eta galdetegietan zein tailerretan bildutako informazioarekin eta balioespenekin, dokumentu honen azken bi atalak idatzi dira: 5. *2018-2024 aldiko mugarr nagusiak*; eta 6. *Hurrengo plangintzaldirako ikaskuntzak eta erronkak*.

Ebaluazioak hiru eranskin ere baditu: (i) 2018-2023 aldian emandako ekimenak eta 2024an emandako ekimenak, (ii) prozesu-matrizea eta lehenetsitako adierazle kuantitatiboak, eta (iii) ekintzen katalogoa, garapen jasangarrirako politiken koherentziatik abiatuta.

### 3. EBALUAZIOAREN EMAITZAK

Atal honetan, azken ebaluazioaren prozesuan lortu diren emaitza nagusiak jaso dira. Emaitzak antolatzeko orduan, IV. Gida Planaren jarraipen- eta ebaluazio-matrizeko hiru atalei jarraitu zaie: baliabideak, prozesua eta erdiespena.

Atal bakoitzean, adierazle eta xede multzo handia finkatu zen Planean. Onetsi ondoren, adierazleak eta xedeak urtebeteko epean berrikustea eta zehaztea espero zen, prozesu- eta erdiespen-matrizeak bereziki. Orobat, oinarrizko ildo bat finkatu nahi zen. Azkenean ez zen bere garaian egin, baina 2021ean egindako bitarteko ebaluazioa erabilgarria izan zen IV. Gida Planaren jarraipen- eta ebaluazio-matrizeari erantzutea egingarria ote zen frogatzeko.

Baliabide-matrizeari erreparatuz, hasieran aurreikusitako adierazleei erantzun ahal izan zitzairen bitarteko ebaluazioan —azken ebaluazio honetan bezala—. Eta beste azterketa-aldagai batzuk gehitu ziren: funtsen banaketa geografikoa, 2030 Agendari egindako ekarpena, etab.

Zailtasunak prozesu- eta erdiespen-matrizeetan sortu ziren, ordea. Abiapuntua adierazle eta galdera multzo zabala izan zen, eta, zenbait kasutan, ez zegoen argi zeri zegozkion eta zertarako ziren adierazle eta galdera horiek. Horrek bitarteko ebaluazioa zaildu zuen.

Prozesu-matrizean, adierazleei mugekin erantzun zitzairen bitarteko ebaluazioan, eta sinplifikatzeko eta lehenetsiak finkatzeko beharra ikusi zen. Era horretan, adierazle kuantitatiboen matrize sinplifikatua eta lehenetsia jaso da azken ebaluazioa honetan, 2. eranskinean (*Prozesu-matrizea eta lehenetsitako adierazle kuantitatiboak*). Behar diren hobekuntzak egin ostean, oinarrizko ildo hasiberri gisa balio dezake lankidetzarako eta elkertasunerako eLankidetzaren politikan.

Erdiespen-matrizearen kasuan, bitarteko ebaluazioaren planteamendua baliatu da azken ebaluazioan ere, dagokion atalean azalduko den moduan. Matrize horrek IV. Gida Planaren helburuen erdiespenarekin zerikusia du, eta, zalantzarik gabe, neurketa mugatuena duen matrizea da: funtsean, galdetegiak erabili dira erdiespena neurtzeko, eta lankidetzarako hainbat eragileren iritziak eta balioespenak jaso dira haietan.

Zenbait urtetarako plangintzaren jarraipenaren ebaluazioaren harira deskribatu diren aurrerapenak eta mugak kontuan harturik, hurrengo plangintza-prozesuko erronketako bat matrize eta jarraipen- zein ebaluazio-sistema egingarriak, errealistak eta erabilgarriak definitzea izango da, lankidetzarako eta elkertasunerako politikan ematen diren aurrerapausoak neurtzera hurbildu ahal izateko.

#### 3.1 BALIABIDEAK

---

Aurreneko bloke hau konpromiso ekonomikoekin lotuta dauden IV. Gida Planeko adierazleei dagokie: (i) aurrekontu-esparrua, (ii) ekintza positiboak eta (iii) funtsen banaketa tresnaren arabera. Horrez gain, 2018-2023 aldiaren emandako funtsen azterketa laburra jaso dugu laugarren puntuan<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Ebaluazio honetan grafiko eta taulen bitartez aurkezten diren datuak 2018-2023 aldikoak dira, 2024koak ebaluazio hau egiten zen bitartean atera baitziren.

Aldi horretan finantzatutako ekimenei buruzko informazio gehiago dago 1. eranskinean: 2018-2023 aldiari emandako ekimenak. 1b eranskina ere badago: 2024an emandako ekimenak.

### 3.1.1 AURREKONTU-ESPARRUA

IV. Gida Planari hasiera batean zegokion aldiari (2018-2023) aurrekontu-aurreikuspen jakin bat esleitu zen urteko, eta bete eta gainditu egin zen, 2021ean izan ezik, COVID-19ak eragindako ezohiko testuingurua dela eta. Hasieran, 53 milioi euro aurreikusi ziren 2021erako. Aitzitik, 2024an erdietsi beharreko helburu bihurtu zen, IV. Gida Planaren 2022-2024 aldirako luzapenean adierazi bezala. Azkenean, hasieran aurreikusitako aurrekontua gainditu egin zen 2024an, 56 milioi euro izan baitziren.

**03. taula.** eLankidetzaren aurrekontu-aurreikuspena eta urteko aurrekontua 2018-2024 aldiari.

Urtea	Aurreikuspena IV. Gida Plana eta luzapena	eLankidetzaren aurrekontua	Aldea
2018	46.044.551,00 €	46.533.177,00 €	488.626,00 €
2019	46.200.000,00 €	46.968.732,00 €	768.732,00 €
2020	49.000.000,00 €	50.005.542,00 €	1.005.542,00 €
2021	53.000.000,00 €	49.387.291,00 €	-3.612.709,00 €
2022	50.500.000,00 €	50.505.959,00 €	5.959,00 €
2023	51.500.000,00 €	51.725.598,00 €	225.598,00 €
2024	53.000.000,00 €	56.286.496,00 €	3.286.496,00 €
<b>Guztira, aldiari</b>	<b>349.244.551,00 €</b>	<b>351.412.795,00 €</b>	<b>2.168.244,00 €</b>

### 3.1.2 NEURRI POSITIBOAK

IV. Gida Planean, urteko konpromisoak hartu genituen funtsen helmuga espezifikoarekin lotuta. Konpromiso horietako gehienak, ekintza positibo gisa, Planaren jardura estrategikoko ardatzetan lehenetsitako ekintzak dira.

**04. taula.** IV. Gida Planean jasotako neurri positiboak.

Lehenetsitako ekintzak	Urtean emateko funtsen gutxieneko konpromisoa
Giza eskubideak defendatzen dituztenentzako babesa eta laguntza	% 4
Emakumeak ahalduntzea	% 20
Hegoko erakunde feministak	% 10
Afrika	% 25
Gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk	% 9
Ekintzak Euskadin	% 13

2018-2023 aldiari, lehenetsitako ekintzei dagozkien konpromiso guztiak bete ditugu urtero, emakumeen 2022ko ahalduntzea salbu. Halaber, Afrikan ere ez zen 2021era arte lortu, baina hurrengo urteetan mantendu egin da.

Jarraian, datu hauek jaso dira neurri positibo bakoitzerako: emandako funtsak, onartutako ekimen kopurua eta funtsen ehunekoa emandako funts guztien gainean. Urtez urteko logika erabili da, eta 2018-2023 aldiko kontsolidatua. Beheko taulako datuak funts eta onartutako ekimen guztiekin erlazionatu nahi izanez gero, 11. taula balia daiteke.

**05. taula.** Urteko eta 2018-2023 aldiko datuak, giza eskubideak defendatzen dituztenentzako babes eta laguntzako ekimenetan.

BABESA	EMANDAKO FUNTSAK	Ekimen KOPURUA	%, emandako funts guztien gainean
2018	2.005.574,62 €	6	% 4,33
2019	1.686.889,05 €	7	% 4,44
2020	1.732.887,94 €	10	% 4,56
2021	3.152.677,40 €	12	% 6,49
2022	2.941.732,48 €	13	% 6,67
2023	3.872.440,50 €	15	% 7,62
<b>GUZTIRA</b>	<b>15.392.201,99 €</b>	<b>63</b>	<b>% 5,79</b>

**06. taula.** Urteko eta 2018-2023 aldiko datuak, emakumeak ahalduntzeko ekimenetan.

AHALDUNTZEA	EMANDAKO FUNTSAK	Ekimen KOPURUA	%, emandako funts guztien gainean
2018	13.288.381,70 €	36	% 28,71
2019	12.045.776,55 €	26	% 31,70
2020	13.049.409,90 €	31	% 34,37
2021	9.955.580,15 €	23	% 20,48
2022	8.183.847,80 €	20	% 18,55
2023	13.778.603,30 €	29	% 27,11
<b>GUZTIRA</b>	<b>56.522.996,10 €</b>	<b>165</b>	<b>% 26,45</b>

**07. taula.** Urteko eta 2018-2023 aldiko datuak, Hegoko erakunde feministen ekimenetan.

HEGOKO ERAKUNDE FEMINISTAK	EMANDAKO FUNTSAK	Ekimen KOPURUA	%, emandako funts guztien gainean
2018	6.049.608,74 €	18	% 13,07
2019	6.841.316,01 €	15	% 18,00
2020	9.543.284,64 €	26	% 25,14
2021	8.814.606,37 €	25	% 18,14
2022	7.005.550,48 €	22	% 15,88
2023	10.625.518,65 €	29	% 20,91
<b>GUZTIRA</b>	<b>48.879.884,89 €</b>	<b>135</b>	<b>% 18,39</b>

**08. taula.** Urteko eta 2018-2023 aldiko datuak, Afrikan egindako ekimenetan.

AFRIKA	EMANDAKO FUNTSAK	Ekimen KOPURUA	%, emandako funts guztien gainean
2018	10.219.902,55 €	37	% 22,08
2019	7.217.947,33 €	20	% 19,00
2020	8.775.846,28 €	27	% 23,12
2021	12.637.456,37 €	41	% 26,00
2022	12.121.971,75 €	33	% 27,47
2023	13.627.157,10 €	44	% 26,81
<b>GUZTIRA</b>	<b>64.600.281,38 €</b>	<b>202</b>	<b>% 24,31</b>

**09. taula.** Urteko eta 2018-2023 aldiko datuak, gatazka-egoeretan eta beste indarkeria-egoera batzuetan egindako ekimenetan.


GATAZKAK	EMANDAKO FUNTSAK	Ekimen KOPURUA	%, emandako funts guztien gainean
2018	5.452.395,92 €	16	% 11,78
2019	4.059.506,55 €	11	% 10,68
2020	4.350.000,00 €	23	% 11,46
2021	10.835.955,39 €	39	% 22,30
2022	7.247.311,87 €	25	% 16,42
2023	9.904.183,93 €	36	% 19,49
<b>GUZTIRA</b>	<b>41.849.353,66 €</b>	<b>150</b>	<b>% 15,75</b>

**10. taula.** Urteko eta 2018-2023 aldiko datuak, Euskadin egindako ekimenetan.

EUSKADI	EMANDAKO FUNTSAK	Ekimen KOPURUA	%, emandako funts guztien gainean
2018	6.101.686,26 €	41	% 13,18
2019	6.094.351,97 €	35	% 16,04
2020	5.015.104,24 €	25	% 13,21
2021	6.611.637,02 €	39	% 13,60
2022	6.190.901,98 €	37	% 14,03
2023	7.152.320,99 €	46	% 14,07
<b>GUZTIRA</b>	<b>37.166.002,46 €</b>	<b>223</b>	<b>% 13,98</b>

01. grafikoan, ekintza positibo bakoitzean aurreikusitako ehunekoa eta 2018-2023 aldian erdietsitako ehunekoa konparatu dira.

**01. grafikoa.** Funtsen ehunekoaren konpromisoa lehenetsitako ekintza bakoitzean eta 2018-2023 aldian lortutako batez besteko ehunekoa lehenetsitako ekintza bakoitzean.



### 3.1.3 BANAKETA TRESNEN ARTEAN

2018-2023 aldian 265 milioi euro baino gehiago eman genituen 845 ekimenen bidez. Urte bakoitzeko funtsak eta ekimen kopurua jaso dira *11. taulan*.

**11. taula.** Urtean emandako funtsak eta ekimen kopurua 2018-2023 aldian.


	FUNTSAK	EKIMEN KOPURUA
<b>2018</b>	46.280.169,85 €	166
<b>2019</b>	37.997.036,71 €	119
<b>2020</b>	37.963.825,12 €	108
<b>2021</b>	48.599.782,37 €	155
<b>2022</b>	44.128.778,37 €	135
<b>2023</b>	50.820.411,63 €	162
<b>GUZTIRA</b>	<b>265.790.004,05 €</b>	<b>845</b>

Jarraian, *12. taulan*, emandako 265 milioi euroren banaketa jaso da, tresnen kategoriaren arabera (tresnaren helburuekin lotuta), bai eta ehuneko erlazioa ere, emandako funts guztien aldean. Bestalde, aldiko kontsolidatuaren datuak jaso dira *02. grafikoan*, tresnaren arabera, eta tresnei buruzko datuak, urtearen arabera, *13. taulan*.

**12. taula.** Funtsen banaketa (ehunekoa) tresnen kategoriaren arabera, 2018-2023 aldian emandako funts guztien aldean<sup>9</sup>.

Tresnen kategoriak, helburuen arabera		aurreikusitako %	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2018-2023 aldia guztira
<b>Gizarte-eraldaketa</b>	<i>Garapenerako lankidetzeta, Hegoko herrialdeetan oinarrituta</i>	≤ % 65	% 69,28	% 71,43	% 73,30	% 61,75	% 65,04	% 62,96	<b>% 66,87</b>
	<i>Tokikoa-globala ikuspegiaren aldeko apustua, Iparra-Hegoa eta lankidetzeta-heziketa logikak gaindituz</i>	≤ % 25	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	<b>% 0,00</b>
	<i>Gizarte-eraldaketarako hezkuntza, Euskadin oinarritua, lotura globalekin</i>	≤ % 20	% 12,15	% 12,17	% 11,24	% 11,07	% 11,42	% 10,70	<b>% 11,43</b>
<b>Krisi humanitarioei erantzutea</b>	<i>Ekintza humanitaria, Hegoko herrialdeetan oinarrituta eta Iparrean ekintzekin</i>	≤ % 15	% 13,29	% 10,72	% 12,35	% 23,74	% 17,32	% 19,83	<b>% 16,62</b>
<b>Eragileak indartzea</b>	<i>Genero-berdintasunaren alde erakundea aldatzea</i>	≤ % 1,5	% 0,58	% 0,39	% 0,00	% 0,45	% 0,69	% 0,75	<b>% 0,50</b>
	<i>Kooperanteak</i>	≤ % 2	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	<b>% 0,00</b>
	<i>NBEko trebakuntza-bekak</i>	≤ % 2	% 1,04	% 0,48	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	<b>% 0,25</b>
	<i>eLankidetzako espezializazio-bekak</i>	≤ % 0,5	% 0,13	% 0,21	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,16	<b>% 0,08</b>
	<i>Gaitasunak egituratu eta indartzea</i>	≤ % 5	% 2,38	% 3,84	% 2,93	% 1,85	% 3,63	% 3,92	<b>% 3,07</b>
<b>Sentsibilizazioa, komunikazioa, ikerketa eta eLankidetzak zuzenean sustatutako ikaskuntzak sortzea</b>	<i>Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa</i>	≤ % 0,5	% 0,32	% 0,39	% 0,00	% 0,00	% 0,00	% 0,00	<b>% 0,11</b>
	<i>Ignacio Ellacuría saria</i>	≤ % 0,1	% 0,03	% 0,04	% 0,00	% 0,03	% 0,04	% 0,03	<b>% 0,03</b>
	<i>eLankidetzaren ekintza propioak</i>	≤ % 5	% 0,79	% 0,31	% 0,18	% 1,11	% 1,87	% 1,65	<b>% 1,04</b>

**02. grafikoa.** Funtsen banaketa tresnaren arabera, eta ehunekoa 2018-2023 aldian emandako funts guztien aldean.



<sup>9</sup> Ehunekoak aldatu egiten dira arrazoi hauengatik, funtsean: (i) "Tokikoa-globala ikuspegiaren aldeko apustua, Iparra-Hegoa eta lankidetzeta-heziketa logikak gaindituz" kategoria programetarako tresnarekin lotuta dago (PGM), eta ez zen deialdia egin 2018-2023 aldian, hura arautzen duen dekretua berrikusten ari zirelako, eta, ondorioz, zertxobait handitu zen garapenerako lankidetzaren kategoria; (ii) krisi humanitarioei emandako laguntza aurreikusitakoa baino handiagoa izan zen COVID-19aren eta beste krisi zein gatazka batzuen ondoriozko arretagatik; (iii) Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa Gazteria Zuzendaritzaren esku dago osorik 2020az geroztik; eta (iv) kooperanteen eta NBEko trebakuntza-beken kategorien deialdia ez zen atera 2018-2023 aldiko urte guztietan edo urteren batean.

### 13. taula. Funtsen banaketa urtean, tresnaren arabera, 2018-2023 aldian.


Tresna	2018	2019	2020	2021	2022	2023	Guztira 2018-2023	% 2018-2023
PRO K1	29.243.878,73 €	24.856.032,37 €	26.600.000,00 €	26.046.709,16 €	26.000.000,00 €	27.600.000,00 €	160.346.620,26 €	% 60,33
PRO K2	956.121,27 €	1.167.693,95 €	1.133.707,67 €	1.200.000,00 €	1.200.000,00 €	1.200.000,00 €	6.857.522,89 €	% 2,58
PRO K3	5.300.000,00 €	3.976.273,68 €	4.266.292,33 €	4.753.290,84 €	4.800.000,00 €	5.200.000,00 €	28.295.856,85 €	% 10,65
EHE	2.900.000,00 €	2.900.000,00 €	- €	4.371.910,78 €	3.000.000,00 €	3.916.057,87 €	17.087.968,65 €	% 6,43
PRE	2.400.000,00 €	999.506,55 €	4.200.000,00 €	6.064.044,61 €	3.997.311,87 €	5.291.971,06 €	22.952.834,09 €	% 8,64
GBA	266.344,26 €	148.319,29 €	- €	218.480,18 €	306.638,03 €	383.320,99 €	1.323.102,75 €	% 0,50
ZUZ	4.506.405,59 €	3.522.340,87 €	1.763.825,12 €	4.359.386,00 €	2.655.064,52 €	4.284.561,71 €	21.091.583,81 €	% 7,94
IZE	- €	- €	- €	1.570.460,80 €	2.154.263,95 €	2.849.000,00 €	6.573.724,75 €	% 2,47
BEK	60.000,00 €	80.000,00 €	- €	- €	- €	80.000,00 €	220.000,00 €	% 0,08
NBE	481.920,00 €	181.370,00 €	- €	- €	- €	- €	663.290,00 €	% 0,25
JVC	150.000,00 €	150.000,00 €	- €	- €	- €	- €	300.000,00 €	% 0,11
SAR	15.500,00 €	15.500,00 €	- €	15.500,00 €	15.500,00 €	15.500,00 €	77.500,00 €	% 0,03
<b>Guztira, orokorra</b>	<b>46.280.169,85 €</b>	<b>37.997.036,71 €</b>	<b>37.963.825,12 €</b>	<b>48.599.782,37 €</b>	<b>44.128.778,37 €</b>	<b>50.820.411,63 €</b>	<b>265.790.004,05 €</b>	<b>% 100,00</b>

### 3.1.4 2018-2023AN EMANDAKO FUNTSEN AZTERKETA

Jarraian, 2018-2023 aldian emandako funtsen banaketa aurkeztuko dugu lau ikuspegitatik: 2030 Agendari egindako ekarpena, herrialdeak, eremu geografikoak eta eragileak (entitate eskatzaileak).

#### 2030 Agendari egindako ekarpena

**03. grafikoa.** 2018-2023 aldian emandako funtsak, Garapen Jasangarrirako Helburuaren arabera (GJH).



## Funtsen banaketa herrialdearen arabera

14. taula. 2018-2023 aldian emandako funtsak, herrialdearen arabera.

Herrialdea	2018-2023an emandako funtsak	%, emandako guztizkoaren aldean	funtsen kontzentrazioa	
Euskadi	37.166.002,46 €	% 13,98	<b>Funtsen % 51,50 7 herrialdetan kontzentratuta dago.</b>	<b>Funtsen % 76,57 15 herrialdetan kontzentratuta dago.</b>
Guatemala	23.923.940,69 €	% 9,00		
Kolonbia	19.149.601,95 €	% 7,20		
El Salvador	17.710.699,38 €	% 6,66		
Peru	16.910.066,45 €	% 6,36		
Bolivia	11.577.650,76 €	% 4,36		
Palestina	10.474.939,68 €	% 3,94		
Mexiko	10.456.464,04 €	% 3,93		
Senegal	10.278.510,57 €	% 3,87		
Ekuador	9.506.715,67 €	% 3,58		
Honduras	8.504.242,14 €	% 3,20		
Kongoko Errepublika Demokratikoa	7.870.357,34 €	% 2,96		
Kuba	7.483.292,41 €	% 2,82		
India	7.116.751,34 €	% 2,68		
Libano	5.396.529,32 €	% 2,03		
Brasil	5.038.992,68 €	% 1,90		
Mali	4.470.074,76 €	% 1,68		
Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa	4.459.308,22 €	% 1,68		
Ruanda	4.003.005,96 €	% 1,51		
Nikaragua	3.414.972,90 €	% 1,28		
Etiopia	3.337.240,80 €	% 1,26		
Txad	2.913.918,58 €	% 1,10		
Uganda	2.732.968,14 €	% 1,03		
Burundi	2.718.599,74 €	% 1,02		
Hainbat herrialde	2.344.881,77 €	% 0,88		
Boli Kosta	2.283.032,30 €	% 0,86		
Tanzania	2.154.835,47 €	% 0,81		
Nigeria	2.039.954,49 €	% 0,77		
Ginea-Bissau	1.860.728,44 €	% 0,70		
Zimbabwe	1.740.271,37 €	% 0,65		
Mozambique	1.587.466,60 €	% 0,60		
Malawi	1.459.603,01 €	% 0,55		
Afrika Erdiko Errepublika	1.012.097,33 €	% 0,38		
Siria	999.980,00 €	% 0,38		
Hainbat herrialde (Afrika)	990.000,00 €	% 0,37		
Costa Rica	962.773,59 €	% 0,36		
Venezuela	914.976,71 €	% 0,34		


Hegoaldeko Sudan	835.712,87 €	% 0,31		
Kamerun	832.727,34 €	% 0,31		
Kenya	772.938,04 €	% 0,29		
Niger	654.727,20 €	% 0,25		
Ginea Konakry	593.736,17 €	% 0,22		
Somalia	589.794,28 €	% 0,22		
Burkina Faso	403.904,37 €	% 0,15		
Filipinak	400.000,00 €	% 0,15		
Pakistan	366.039,48 €	% 0,14		
Haiti	350.299,44 €	% 0,13		
Sudan	347.900,00 €	% 0,13		
Txile	346.825,93 €	% 0,13		
Togo	256.878,07 €	% 0,10		
Mauritania	246.767,00 €	% 0,09		
Afrika, zehaztu gabe	244.522,13 €	% 0,09		
Irak	200.000,00 €	% 0,08		
Paraguai	189.251,45 €	% 0,07		
Benin	173.000,00 €	% 0,07		
Madagaskar	161.183,48 €	% 0,06		
Tunisia	160.000,00 €	% 0,06		
Sierra Leona	141.867,00 €	% 0,05		
Uruguai	117.802,00 €	% 0,04		
Ghana	89.254,37 €	% 0,03		
Egipto	68.540,00 €	% 0,03		
Sri Lanka	62.500,00 €	% 0,02		
Dominikar Errepublika	56.419,00 €	% 0,02		
Gambia	35.904,37 €	% 0,01		
Hegoafrika	35.904,37 €	% 0,01		
Kongo	35.904,37 €	% 0,01		
Eritrea	35.714,29 €	% 0,01		
Nepal	18.540,00 €	% 0,01		
<b>Guztira, orokorra</b>	<b>265.790.004,05 €</b>	<b>% 100,00</b>		

## Funtsen banaketa eremu geografikoaren arabera


15. taula. Urtean eta 2018-2023 aldian emandako funtsak, eremu geografikoaren arabera.

	2018		2019		2020		2021		2022		2023		2018-2024 aldia	
	Emandako funtsak (€)	%, guztizkoaren gainean	Emandako funtsak (€)	%, guztizkoaren gainean	Emandako funtsak (€)	%, guztizkoaren gainean	Emandako funtsak (€)	%, guztizkoaren gainean	Emandako funtsak (€)	%, guztizkoaren gainean	Emandako funtsak (€)	%, guztizkoaren gainean	Emandako funtsak (€)	%, guztizkoaren gainean
Afrika	10.219.902,55	22,08	7.217.947,33	19,00	8.775.846,28	23,12	12.637.456,37	26,00	12.121.971,75	27,47	13.627.157,10	26,81	64.600.281,38	24,31
Asia	4.206.387,19	9,09	3.864.262,98	10,17	1.705.705,33	4,49	6.835.257,57	14,06	2.638.160,96	5,98	5.635.505,79	11,09	24.885.279,82	9,36
Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea	11.509.938,11	24,87	11.478.682,56	30,21	11.130.281,86	29,32	13.348.389,88	27,47	13.407.589,84	30,38	11.988.221,35	23,59	72.863.103,60	27,41
Euskadi	6.101.686,26	13,18	6.094.351,97	16,04	5.015.104,24	13,21	6.611.637,02	13,60	6.190.901,98	14,03	7.152.320,99	14,07	37.166.002,46	13,98
Nazioartekoa	150.000,00	0,32	250.000,00	0,66	200.000,00	0,53	700.000,00	1,44	794.881,77	1,80	400.000,00	0,79	2.494.881,77	0,94
Hego Amerika	14.092.255,74	30,45	9.091.791,87	23,93	11.136.887,41	29,34	8.467.041,53	17,42	8.975.272,07	20,34	12.017.206,40	23,65	63.780.455,02	24,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>46.280.169,85</b>	<b>100,00</b>	<b>37.997.036,71</b>	<b>100,00</b>	<b>37.963.825,12</b>	<b>100,00</b>	<b>48.599.782,37</b>	<b>100,00</b>	<b>44.128.778,37</b>	<b>100,00</b>	<b>50.820.411,63</b>	<b>100,00</b>	<b>265.790.004,05</b>	<b>100,00</b>

**04. grafikoa.** Urtean emandako funtsen ehunekoa, eremu geografikoaren arabera.




**05. grafikoa.** 2018-2023 aldiaren emandako funtsak, eremu geografikoaren arabera.



## Funtsen banaketa, eragileen arabera<sup>10</sup>

**06. grafikoa.** 2018-2023 aldian emandako funtsen ehunekoa, eragile motaren arabera (entitate eskatzaileak).



## 3.2 PROZESUA

Bigarren bloke hau IV. Gida Plana gauzatzeko prozesuarekin lotuta dago. Hartara, Planaren prozesu-matrizearen eskemari jarraituz, egindakoaren laburpen bat aurkeztuko dugu, IV. Gida Planaren jardura estrategikoko zortzi ardatzetako eta sei elementu giltzarrietako bakoitzari begira. Halaber, eragileen galdetegietan jasotako balioespenak ere adierazi dira ardatzen batean. Informazioa 2018ko urtariletik 2024ko ekainera bitarte bildu da.

Balioespen laburrez gain, 2018-2024 aldian prozesu-matrizean emandako aurrerapausoei buruzko informazio gehiago dago 2. eranskinean: *Prozesu-matrizea eta lehenetsitako adierazle kuantitatiboak*. Eranskina IV. Gida Planaren jardura estrategikoko zortzi ardatzen eta sei elementu giltzarrien arabera antolatuta dago, eta jardura-ildoak aipatzen dira bakoitzerako. Zehazki, aztergai dugun aldiko jardura-ildoan azalpena eta erdiespenaren balioespena aurkeztuko dira, bai eta jardura-ildoetarako lehenetsi diren adierazle kuantitatiboak ere. Aurretik adierazi den bezala, IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazioko gomendioei jarraituz, prozesu-matrizea sinplifikatu da eta adierazle kuantitatibo jakin batzuk lehenetsi dira. Ondorioz, hasierak planteatutako adierazleen eta azterketa-kategorien multzoa nabarmen murriztu da.

<sup>10</sup> Eragile deritzegu dirulaguntzak jaso dituzten entitate eskatzaileei. Entitate eskatzaileen partzuegoa dagoenean, burua soilik hartu da kontuan. Hegoko eta nazioarteko eragileak daude, entitate eskatzaileek izaera hori baitute zuzeneko dirulaguntza eta dirulaguntza izendun batzuetan.

### 3.2.1 GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIA

Nabariki aurrera egin da garapenerako politiken koherentzian 2018-2024 aldian. Dena den, aurrerabidea moteldu egin da aldiaren amaieran.

Koherentzia horizontalari begira (Eusko Jaurlaritza), azpimarratu behar da garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzko lantaldea 2019an sortu zela Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren barruan, eta Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren arloan garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzko lehen txostena argitaratu zela 2021ean. Bestalde, aldian zehar, Eusko Jaurlaritzako sailak haien jarduketara-erloekin lotutako lankidetzak-ekimenetan txertatzea aurrera doa. Hari horretatik, Ginea Bissau-Euskadi Osasun Globaleko programa nabarmendu behar da, zeinean Osasun Sailak eta Osakidetzak parte hartzen duten.

Alabaina, aurrerapausoak mugatuak izan dira Eusko Jaurlaritzako kideen artean garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzko trebakuntzan eta sentsibilizazioan, eta berdin aurreikusitako hiru ekimen pilotuen inplementazioan: AUZO(LAN)KIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDE, AUZO(LAN)KIDEAK EROSTERAKOAN eta AUZO(LAN)KIDEAK MUNDUAN. 2018-2021 aldiaren ebaluazioan egindako azterketa dela eta, hiru ekimenak baztertu egin ziren IV. Gida Planaren 2022-2024 aldirako luzapenean.

Koherentzia bertikalari dagokionez (egituratzea eta koordinazioa lankidetzak publikoko Euskadiko eragileen artean), aurrerapena nabaria izan da aurreikusitako ekintzetan. Garrantzi handiko erakunde arteko ekintzak egin dira, adibidez, AKUAL Ertamerika-Euskadi ur eta saneamenduaren arloko erakunde arteko lankidetzak programa, AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKINen aurreikusitakoa. Hirugarren edizioa 2024an abiarazi zen. Era berean, (H)ABIAN 2030en komunikazio-kanpaina egin da eta webgunea martxan jarri da, AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOANen esparruan, eta (H)ABIAN 2030en adierazle-matrizea eta oinarrizko ildoak prestatu dira. Halaber, euskal lankidetzak publikoaren ataria abian jarri da, 3/2024 Legerako lan-saioak egin dira eta erakunde arteko ekimen bat identifikatu da Senegalen. Aitzitik, ez da aurrerapenik egin lankidetzako euskal erakundeek baterako ebaluazioak egiteko.

Azkenik, autonomia-erkidegoei erreparatu, harremana indartu egin da eta ekimenak egin ditugu lankidetzak deszentralizatuko beste eragile batzuekin. Besteak beste, aipatzekoa da lankidetzak-topaketak sustatu direla, autonomia-erkidegoek parte hartu dutela eta ekintza koordinatu bat zehaztu dela Guatemalako trantsizio-justiziaren inguruan, Garapenerako Lankidetzako Kataluniako Agentziarekin batera (ACCD).

### 3.2.2 EREMU ESTRATEGIKOAK

IV. Gida Planaren apustu berrietako bat eremu estrategikoak martxan jartzea izan da, lankidetzak egiteko modu berri baten gisara. Haatik, 2018-2024 aldian ez da aurreikusi bezainbeste sakondu.

2019an, bi eremu estrategiko abiarazi genituen: AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN eta AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN. Lehen eremuak Kolonbia mahaiarekin bat egin zuen. Zertxobait aurreratu da esparru horretan, baina eragile askoko espazio hori ez da bideratu IV. Gida Planaren eremu estrategikoei begira aurreikusi zen logikarekin. Dena den, AUZO(LAN)KIDEAK BAKEANi buruz azpimarratu behar da Cauca iparrean (Kolonbia) sustatutako ekimen bat zehaztu egin dela, Cauca Iparreko Etniarte eta Kulturarte Lurralde Kontseiluaren lana indartze aldera. Horretarako, zuzeneko dirulaguntzak eman dira eta lankidetzako hainbat euskal eragilek identifikazioan parte hartu dute.

Bestalde, bigarren eremu estrategikoan –AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN–, baterako lan-saioen ekintza batzuk egin ziren hasieran. Haatik, 2020an gelditu egin zen COVID-19aren eraginez, eta ez zaio berriz ekin. Nolanahi ere, esparru horretan ekimenak sustatu dira gaitasunak sendotzeko helburuarekin eta ekonomia sozial eta solidarioan diharduten Euskadiko zein Hegoko eragileak lankidetzan aritzeko.

Nahiz eta eremu estrategikoen ibilbidea mugatua izan den, Kolonbia mahaia balioetsi zen 2023an eta, ebaluazio horren baitan, AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen garapena eta erdiespena berrikusi dira erakundearen baitan, jorratu ditugun bi eremu estrategikoak barne (ikus 3.3.4 atala, *AUZO(LAN)KIDEAK ekimenaren balioespena*).

### 3.2.3 TOKIKOA GLOBALA

IV. Gida Planean jasota datozen apustuetako bat konpartimentuetan banatutako laneko logikak gainditu eta tokikoa-globala ikuspegian sakontzea izan da. Dena den, ardatz honen ibilbidea mugatua izan da, eta tokikoa-globala ikuspegiaren planteamenduari eta erdiespenari buruzko hausnarketa egiteko dago oraindik eLankidetzan.

Hala ere, ikuspegia tresnetan txertatzeko lanak bere isla izan du, oraingoz, proiektuen tresnari (PRO) buruzko 3. kapituluaren (K3) eta, bereziki, programen tresna berrian (PGM). Hartan, ikuspegiak berebiziko garrantzia du, eta lehen deialdia 2024an egin zen. Bestalde, aurrerapauso batzuk eman eta zenbait ekintza egin direla aitorturik ere, hobetzeko tarte dago: jardunbide egokiak identifika daitezke, trukeak egin daitezke eta ikasi egin daitezke.

Sareei eta aliantzei buruz nabarmendu behar da eskualdeetako eta munduko hainbat sareren ekimenak babestu eta finantzatu direla, eta honako hauetan parte hartu dugula: (i) PLATFORMA (garapenerako lankidetzan modu aktiboan diharduten Europako hiri eta eskualdeen sarea), Euskal Fondoa-Lankidetzarako Tokiko Euskal Erakundearen Elkartearekin batera; (ii) Garapen Jasangarrirako Hezkuntzako Eskualdeko Zentroa (RCE, ingelesezko siglengatik); eta (iii) Protect Defendersen EUTRP-European Union Temporary Relocation Platform, giza eskubideen defendatzaileen babeserako euskal programaren esparruan.

### 3.2.4 GIZA ESKUBIDEAK

Ardatz honen garapena desberdina izan da. Bi jarduera-ildo definitu ziren: giza eskubideen ikuspegian sakontzea eta giza eskubideen defendatzaileak babestea. Lehen ildo ez da aurrekusi bezainbeste zehaztu, ikuspegia txertatzea proiektuen (PRO) 3. kapituluaren (K3) eta ekintza humanitarioko (EHE eta PRE) baremo eta inprimakietan soilik berrikusi baitzen. Orobat, aurrerapauso batzuk eman eta zenbait ekintza egin direla aitorturik ere, hobetzeko tarte dago: jardunbide egokiak identifika daitezke, trukeak egin daitezke eta ikasi egin daitezke. Hain zuzen ere, IV. Gida Planaren 2022-2024 aldirako luzapenean ildo horretan lan egiten jarraitzea baztertu eta babesaren ildoko ahaleginak lehenetsi ziren.

Neurri handiagoan garatu dira giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, elkarteak, komunitateak eta sareak babesteko ekintzak. Horren haritik, honako hau azpimarratu behar da: eLankidetzaren babeserako 2020-2023ko ibilbide-orria definitu da, berrikusi da eta eguneratu da 2024-2026 aldirako; Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzarekiko harremana egituratu eta sendotu da giza eskubideen defendatzaileen babeserako euskal programaren esparruan; eta emandako funts guztien % 4 urtero babesera bideratzeko konpromisoa lortu da. Ostera, babesaren arloko ikaskuntzaren garapena mugatua izan da, eta oraindik ez dugu abiarazi babeserako eta intzidentzia politikorako komunikazio-protokoloa.

**1 puntutik 5 puntura bitarte, nolakoa izan da giza eskubideen defendatzaileak babesteko ekimenak lehenesteari emandako bulkada?**



### 3.2.5 GENEROA

Ardatz honen aurrerabidea nabaria izan da, baina desberdin sakondu da jarduera-ildo bakoitzean.

Zeharkako ikuspegian eta emakumeak ahalduntzeko ikuspegi sektorialean sakontzea dela bide, genero-berdintasunaren aldeko planak nabarmen bultzatu dira: 2018-2023 aldian, genero-berdintasunaren aldeko 40 prozesu onartu ziren (GBA). Halaber, emandako funts guztien % 20 emakumeak ahalduntzeko ekimenetara (2022an izan ezik) eta % 10 Hegoko erakunde feministetara bideratzeko konpromisoa lortu da urtero. Aitzitik, garapen mugatua egokitu zaio ikaskuntzari, jardunbide egokiak identifikatzearekin, trukearekin eta ikaskuntzarekin lotuta, zeharkakotasunaren eta ahalduntzearen alorrean. Hala ere, aipatzekoa da genero-berdintasunaren aldeko jardunaldiak egin direla urtero Euskadiko GGKE-en Koordinakundearekin, eta bi urtez behingo jardunaldiak garapen-estrategia positiboari buruz Bilboko Udalarekin batera, 2018an, 2022an eta 2024an.

Sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia sustatzeari buruz esan behar da ekimenen mapa osatu dela, trebakuntza-ekintzak egin direla (2021ean egindako onlineko trebakuntza bereziki) eta proiektuen (PRO) 3. kapituluan (K3) ikuspegia txertatzeko lana aurreratu dela. Gainera, ekimenak bultzatu dira zuzeneko dirulaguntzen bitartez.

Azkenik, eLankidetzan genero-zeharkakotasuna indartzeari begira, nabarmendu behar da Genero Berdintasunaren Alde Erakunde Aldatzeko I. Plana zehaztu dela 2021-2024rako.

**1 puntutik 5 puntura bitarte, nolakoa izan da emakumeak ahalduntzeko ekimenak eta Hegoko erakunde feministekin egindako ekimenak lehenesteari emandako bulkada?**



### 3.2.6 AFRIKA

Afrikarekiko lankidetzak bultzatzea IV. Gida Planeko lehenespen geografiko nagusia da. Nahiz eta aurrera egin den Afrikarekin zerikusia duten jarduera-ildo gehienetan, ez da hasieran aurreikusitakoa bezainbeste sakondu, eta Afrikako lana bultzatzeko ibilbide-orria zehazteko dago. 2024aren amaierarako aurreikusi da.

Afrikan oinarritutako eta Afrikako eragileekin egiteko ekimenen sustapena dela eta, Afrikara doazen funtsak mailaz maila handitzen ari direla azpimarratu behar da. Ildo horretan, 2021ean, emandako funts guztien % 25 Afrikara bideratu zen, 2022an eta

2023an bezalaxe. Besteak beste, tresnetan funtsen erreserbak egitearekin eta baremoak Afrikako testuinguruetara egokitzearekin lotuta dago hori. Horrez gain, Afrikako errealitateak Euskadin ezagutzea sustatu dugu 2018-2024 aldian, Afrikako Egunaren ospakizuna zein Afrikaldia jaialdia babestuz, eta afrikar eta euskal entitateen arteko konexioa ere bultzatu dugu.

Eragileak indartzeko xedearekin topaketa- eta ikaskuntza-guneak sortzeari buruz azpimarratu behar da trebakuntza-prozesuak egin direla Senegalgo, Kongoko Errepublika Demokratikoko eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko entitateekin. Halaber, trebakuntza eskaini zaie sektore horretan diharduten Euskadiko entitateei, nahiz eta azken urteetan ez diren egin. Eta eLankidetzaren zeregina indartzea dela eta, kontaktuak egin ditugu gai horretan aritzen diren hainbat erakunderekin. Dena den, ez dugu ia aurreratu Afrikari buruzko trebakuntza espezifikoa, eLankidetzako taldearentzat.

Aipatzekoak dira, halaber, AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN, AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN, AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN eta AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN esparruetan egindako ekimenak, zuzeneko dirulaguntzen bidez zehaztutakoak. Mugatua izan bada ere, helburua afrikar eta euskal errealitateak lotzea da. Eta, azkenik, Ginea Bissau-Euskadi Osasun Globaleko programa sustatu dela eta Saint-Louisen (Senegal) etorkizunean egin daitekeen erakunde arteko lankidetzaren programa bat identifikatu dela azpimarratu behar da.



### 3.2.7 GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA EGOERA BATZUK

Gatazken eta beste indarkeria-egoera batzuen ardatza eLankidetzaren 2018-2023ko ekintza humanitarioko estrategiarekin lotuta dago. 2024-2026 aldirako eguneratu da, eta aurrerapausoak nabariak izan dira jarduera-ildo gehienetan.

Erakunde humanitarioak indartzeari erreparatuta, Euskadiko erakunde humanitarioen trebakuntza-beharrei buruzko azterlan bat egin da, eta, horren ostean, hainbat gairen inguruko Prestakuntzarako eta Esperientziak Trukatze Espazioa (PETE) bideratu da urtero. Gainera, Palestinako ekimeneen ebaluazioa eta lotura hirukoitzari buruzko azterlana egin dira. Era berean, kontuak eman eta sentsibilizazioaren harira, partaidetzari eta kontuak emateari buruzko azterlan bat egin da, trebakuntza-ekintzak egin dira eta gai horrekin lotutako tresnak eraiki eta pilotajea egin da.

eLankidetzaren zeregina indartzeari dagokionez, ekintza humanitarioari buruzko eztabaida-espazio ugarian parte hartu dugu eta koordinazio-ekintzak zehaztu ditugu Euskadiko, beste autonomia-erkidegoko eta estatuko eragileekin. Aldiz, komunikazio-produktuak sortu eta hedatzeak eta eLankidetzako langileentzako trebakuntzak ekintza humanitarioari buruz ibilbide mugatua izan dute.

Amaitzeko, emandako funts guztien %9 gatazketara eta beste indarkeria-egoera batzuetara bideratzeko konpromisoa bete egin da urtero, eta ekarpena egin dugu larrialdietako deien aurrean eta funtsetan erregulartasunez, bereziki larrialdiko kasuetan

jarduteko funts zentralarekin (CERF, ingelesezko siglengatik) eta Palestinako eta Ekialde Hurbileko errefuxiatuentzako NBERen Agentziarekin (UNRWA, ingelesezko siglengatik).

**1 puntutik 5 puntura bitarte, nolakoa izan da gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan ekimenak lehenesteari emandako bulkada?**



### 3.2.8 EZAGUTZA ETA IKASKUNTZA SORTZEA

Ezagutza eta ikaskuntza sortzea IV. Gida Planaren apustu bat da. Alabaina, ardatz honek ibilbide mugatu samarra eduki du 2018-2024 aldian.

Ezagutza kudeatzeko estrategia bat eta ebaluazio-plan bat definitzea aurreikusita genuen 2018-2024 aldirako, baina ez gara iritsi bi esparru-dokumentu horiek zehaztera. Nolanahi ere, aurrera egin dugu bi lerroetan. Ezagutzaren kudeaketan, ekimenen mapak egin ditugu jarduera estrategikoko ardatzen arabera, ardatz bakoitzerako ikaskuntza-ildo bat finkatzeko lehen urrats gisa. Kasu batzuetan, ikaskuntza-ildoen garapenean ere aurrerapausoak eman ditugu. Gainera, datuak ustiatzeko oinarriak ezarri ditugu. Ebaluazioari begira, azken urteotan lagundu ditugun ekimenen ebaluazioen mapa egin dugu, hainbat ebaluazio propio sustatu ditugu (besteak beste, aipatzekoa da PRO proiektuen tresnaren ebaluazio-prozesua hasi dela) eta ebaluazio-fitxa bat eta kudeaketa-txosten bat osatzeko derrigortasuna finkatu dugu, proiektuetako (PRO) ebaluazio finantzatuetan.

Ikerketa bultzatzea dela medio, ikerlanen mapa egin genuen proiektuen (PRO) 3. kapituluaren (K3) esparruan, eta eLankidetzak ikerlanak eta argitalpenak sustatu ditu. Horien artean, lankidetzak deszentralizatuari buruz 2022az geroztik urtero kaleratzen dugun txostena azpimarratzekoa da. Ez dugu aurrera egin ikerketako tresna propio bat edukitzea komeni ote litzatekeen aztertzeko lanean, ezta eragileen ikerketa-gaitasunak modu sistematikoan indartzeko lanean ere.

### 3.2.9 GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA


IV. Gida Planean ez dago gizarte-eraldaketarako ildo espezifiko bat. Haatik, zuzeneko lotura duen ikuspegi bat dakar: herritar kritikoak. Horregatik, gizarte-eraldaketarako hezkuntza aztertu beharreko elementu gisa jaso dugu, hiru eremuri begira: ekimenak lehenestea, ikaskuntza eta hezkuntza-erakundea.

Ekimenak lehenesteko ildoan nabarmendu behar da funts guztien % 13 gutxienez Euskadin egindako ekimenetara bideratu dela urtero, 2018-2023 aldian. Kopuru hori gizarte-eraldaketarako hezkuntzarekin lotuta dago zuzenean, Euskadin egindako ekimen gehienak eremu horretakoak baitira.

Ikaskuntzaren ildoan, Heziketa Topaketak urtero egin dira Hezkuntza Sailarekin antolatuta. Era berean, jorratzen diren gaiak buruzko gidak eta ikus-entzunezko materialak egin dira; adibidez, (H)ABIAN 2030en indar-ideiak garatzen dituzten urteroko jardunaldiak (Euskadiko GGKE-en Koordinakundearekin eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuarekin batera). Gainera, *Euskadiko Gazteak*

*Lankidetzan* programaren ebaluazioa eremu horretan egin zen, eta, ikaskuntzari dagokionez, gizarte-eraldaketarako hezkuntzako proiektuak (PRO-K3) ixteko espazioak bideratu dira.

Azkenik, hezkuntza-erakundeari dagokionez, Hezkuntza Sailarekin garatutako artikulazioa eta ekimenak nabarmendu nahi ditugu; esate baterako, aipatutako Heziketa Topaketan garapena edo Eusko Jaurlaritzan hezkuntzaren arloan garapen jasangarrirako politiken koherentziari buruzko lehen txostena egin izana, 2021ean argitaratu zena. Eusko Jaurlaritzako beste arlo batzuekin ere aurrera goaz, nahiz eta hobetzeko tarteak badagoen eta baterako ekimenak zehaztu behar diren.



### 3.2.10 LEHENTASUNAK: ZEHARKAKOAK ETA GEOGRAFIKOAK

Aurreko ataletan, jarduera estrategikoko ardatzetan, generoren, giza eskubideen eta tokikoa-globalaren zeharkako ikuspegietara hurreratu gara. Jarraian, zeharkako beste ikuspegi hauek jarriko dugu arreta: jasangarritasun ekologikoa, eta gaitasunak, partaidetza eta antolaketa indartzea.

Jasangarritasun ekologikoan, ez ditugu ikuspegiari buruz aurreikusitako trebakuntza-espazioak eta ebaluazioak bultzatu, eta ingurumeneko ekintzak neurri mugatuan gauzatu dira. Dena den, Eusko Jaurlaritzako IHOBE-Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak eta eLankidetzak sinatu duten protokoloa azpimarratu behar da, jarduera orokorreari buruzkoa, norabide horretan aurrera egiteko xedea duena. Bestalde, gaitasunak, partaidetza eta antolaketa indartzeko zeharkako ikuspegia berrikusi egin da proiektuen (PRO) 3. kapituluko (K3) eta ekintza humanitarioko (EHE eta PRE) baremoetan, eta ekintza humanitarioan parte hartzeari eta kontuak emateari buruzko trebakuntza-espazioak bideratu dira.

Lehentasun geografikoetan, Afrikari buruzko jarduera estrategikoko ardatzean esandakoaz gain, aipatu behar da Kubak eta Euskadik elkar ulertzeko memorandum bat sinatu zutela 2020an, eta hartan Kuban lagundu eta bultzatzen dugun lankidetzaren lehentasunak zehazten dira. Bestalde, topaketa geografikoak egin ditugu urtero edo bi urtetik behin lankidetzako euskal eragileekin, herrialdearen eta eremu geografikoen arabera.

### 3.2.11 KOMUNIKAZIOA

Komunikazioaren aldeko apustuak nabarmen aurrera egin du 2018-2024 aldian. 2019-2022 aldirako I. Komunikazio Plana definitu eta ebaluatu dugu, eta eLankidetzak barneko komunikazioaren arkitektura finkatu. Gainera, webguneari eta sare sozialei begira, eLankidetzaren webgunea birdiseinatu dugu eta gure presentzia hobetu dugu Twitter/Xn eta YouTube, nahiz eta hobetu daitekeen. 2024ko ekainean zehazteko zegoen eLankidetzaren komunikazio-estrategia berria eta, esparru horretan, estrategia digitala definitzea.

Gardentasunaren kasuan, eLankidetzaren urteko memorien edukia berriz definitu dugu eta formatu bisualagoa eman diogu. Halaber, triptiko bat prestatu dugu edukiaren

laburpen gisa, lau hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. Eta, lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoekin batera, euskal lankidetzaren publikoaren ataria abiarazi genuen 2018an. Urtez urte eguneratzen eta hobetzen ari gara.

Alderdi positibo gisa, hedabideekiko harremana indartu da: eLankidetzaren eta EITBren arteko hitzarmena gauzatu da eta indarrean da 2023az geroztik, edukiak hainbat kanaletan hedatzeko. Era berean, hainbat komunikazio-kanpaina egin dira aztergai dugun aldian.

### 3.2.12 PLANGINTZA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Zenbait urtetarako plangintzaren harira, IV. Gida Planaren testuinguruan aipatzekoa da planak eta urteko memoriak egin eta sozializatu direla, 2018-2021 aldirako bitarteko ebaluazioa egin dela, IV. Gida Planaren luzapena gauzatu dela 2022-2024 aldirako eta azken ebaluazioa egin dela 2024an, zeinaren baitan adierazle-matrizea sinplifikatu zen. Zehazki, ebaluazio honen 2. eranskinean dago: *Prozesu-matrizea eta lehenetsitako adierazle kuantitatiboak*.

Plangintza sektorialeki dagokienez, eLankidetzaren hainbat dokumentu estrategiko zehaztu eta ebaluatu ditugu. Bestalde, barneko berrikuspenen ostean, zenbait plangintza sektorial eguneratu ditugu beste aldi baterako, dokumentu sektorial horien plangintza-ziklo berria eLankidetzak 3/2024 Legearen esparruan gauzatzen duen zenbait urtetarako plangintzaren barruan gerta dadin.

- (i) Ekintza humanitarioko estrategia: 2018-2023 aldirako zehaztu eta 2023an berrikusi zen, eta, geroago, estrategia eguneratu egin zen 2024-2026 aldirako.
- (ii) Genero-berdintasunaren aldeko plana: 2021-2024 aldirako definitu zen eta berrikusteko dago; hala badagokio, eguneratu ere egingo da.
- (iii) Komunikazio-plana: 2019-2022 aldirako zehaztu eta 2023an ebaluatu genuen. Komunikazio-estrategia berria egiteko dago, eta, esparru horretan, baita komunikazio digitaleko estrategia ere.
- (iv) Giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, elkarteak, komunitateak eta sareak babesteko ibilbide-orria: 2020-2023 aldirako definitu zen, barneko berrikuspenera egin genuen 2023an eta dokumentua eguneratu egin da 2024-2026 aldirako.
- (v) Afrikako ibilbide-orria: Afrikako lana sustatzeko ibilbide-orri bat definitzeko prozesua abian da 2025-2026rako, baina ez da bukatu oraindik. 2024a amaitu aurretik prest egotea espero da.

### 3.2.13 ARAUDIAREN BERRIKUSPENA

Atal honetan jasotako ekintzetan neurri desberdinean egin da aurrera. Lankidetzari buruzko legea berrikusteko prozesua planifikatutakoa baino harago aurreratu da; dekretuak eguneratzeko blokean, aldiz, aurreikusitakoa baino neurri txikiagoan eman dira aurrerapausoak.

Ezbairik gabe, aldiko mugarririk handienetako bat lankidetzarako eta elkartasunerako otsailaren 15eko 3/2024 Legea onartzea izan da, garapenerako lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legearen lekua hartu duena. Legea berrikusteko hasierako intsumo gisa, 1/2007 Legearen ahalmenen eta mugen azterketa bat baliatu genuen, Koldo Uncetak egindakoa. Geroago, eLankidetzak kontsulta- eta partaidetza-prozesu bizia lideratu zuen lankidetzaren eta elkartasuneko hainbat eragilerek.

Dekretuak eguneratzea dela eta, honako hauek argitaratu ditugu 2018-2024 aldian: genero-berdintasunaren alde erakunde aldatzea (GBA), 2018an; ekintza humanitarioa (EHE eta PRE), 2019an; *Ignacio Ellacuría* saria (SAR), 2020; eta programak (PGM), 2024an. Gainera, finantza-lankidetzarako aukeren eta tresnen inguruko azterlan bat egin dugu, eta aurrerabidea lortu dugu proiektuen dekretua (PRO) berrikusteko prozesuan. Kooperante profesionalen (KOP) eta NBEko beken (NBE) dekretuak berrikusteko daude.

### 3.2.14 KUDEAKETA

Kudeaketaren blokean aurrerapauso nabariak eman dira, eta, orobat, egitekoak ere gelditu dira. Berrikuntza administratiboaren ildoan, deialdien izapidetze elektronikoa sendotu da, gure dekretuak dirulaguntzen araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea egokitu dira —azken onespeneren prozesuan oraindik— eta lege horren erregelamenduzko garapen espezifikoak bideratu da lankidetzak- eta elkartasun-ekintzetarako.

Pertsonen erreparaturik, eLankidetzako plantilla handitu egin da eta bulegoak egoitza berrira lekualdatu ziren 2021ean: gure jarduerak egiteko aukera gehiago ditugu bertan. Bestalde, eLankidetzako langileen trebakuntza-plana zehazteko dago, 2024ko lehen sei hilabetean trebakuntza-beharren diagnostikoa egin ondoren.

## 3.3 ERDIESPENA

---

IV. Gida Planeko jarraipen- eta ebaluazio-matrizearen hirugarren eta azken bloke honetan, lankidetzak-politika gauzatzeko dakartzan zuzeneko ondorioetan jarri da arreta. Erdiespena neurtzeko lanean aurrera egin nahi da, 2014-2017ko III. Gida Planaren ebaluazioan sortutako erronketako bat den aldetik. Besteak beste, ebaluazio-prozesu horretan ondorioztatu zen III. Gida Planeko matrizeak eLankidetzaren “funtzionamendu-mekanismoari buruzko” informazio asko ematen zuela, baina ez subjektu diren herritarren arteko inpaktuari buruzkoa edo egin nahi ziren aldaketari buruzkoa.

Gomendio hori gogoan, IV. Gida Planeko erdiespen-matrizea garatu genuen, planean finkatutako politikaren hiru helburuak neurtzeko lanean aurrera egiteko:

1. helburua Gaitasunak indartzea eta pertsonen zein kolektiboek sustatutako estrategiei laguntzea, bereziki modu sistematikoan baztertzeko diren artean, giza garapen jasangarriaren eta giza eskubideak bete-betean gauzatzeko bidean aurrerapausoak emateko.
2. helburua Lankidetzak-politikaren oinarri soziala handitzea eta Euskadiko pertsonen, entitateen eta erakundeen elkartasuna eta inplikazioa sendotzea.
3. helburua Gure jardunbideak eta ikuspegiak berrikuntzatik eta ikaskuntzatik eraldatzea, erantzunak egokiagoak, osoagoak, estrategikoagoak eta koordinatuagoak izan daitezen garapeneren arazoak arabera.

Plana egikaritzen hasi zenean bertan ez zeuden definiturik adierazle-multzoa, oinarrizko ildoak eta jarraipen-sistema sendoa eta, esan bezala, horrek hiru helburuen erdiespena neurtzea mugatu egin du. Neurketa horren aurrerabidean, bitarteko ebaluazioan egindakoa egin dugu azken ebaluazio honetan ere: (i) 1. helburuaren erdiespena aztertzeko, subjektu diren herritarrak eta IV. Gida Planean jasotako politikaren eta ardatz

estrategikoen hedapenarekin lotuta dauden erakundeak kuantifikatu ditugu, azterketa kualitatiboagoa egitea falta da; eta (ii) IV. Gida Planean datozen ikuspegiekin loturik, 2. eta 3. helburuen erdiespena hainbat eragileri kontsultak eginez aztertu dugu, onlineko galdetegiak erabilia.

Horrez gain, bitarteko ebaluazioan landu ez genituen bi elementu sartu ditugu erdiespenaren atal honetan: (i) AUZO(LAN)KIDEAK ekimenaren garapenaren eta erdiespenaren balioespena, eta (ii) Eusko Jaurkitzearen eta eLankidetzaren ekintza multzo baten azterketa, garapen jasangarriko politiken koherentziatik abiatuta.

Hurrengo ataletan erdiespena dela-eta aurkeztuko ditugun datuak eta gaiak lankidetzapolitikaren irismenera hurreratzeko baliagarri zaizkigu, neurri batean. Baina, zalantzarik gabe, oso neurrerik mugatua da, eta, datorren plangintzaldiari begira, jarraipen- eta ebaluazio-matrizea eta jarraipen-sistema hobeto definitzera garamatza.

### **3.3.1 1. HELBURUA: DATU KUANTITATIBOAK**

IV. Gida Planaren lehen helburua lankidetzapolitikaren irismenarekin lotuta dago, haren subjektu diren pertsonen eta komunitateen dagokienez. Hala, Planaren aldiaren baitan, erdiespena oro har neurtzeko mekanismoak finkatzea erabaki genuen, Planarekin konpromiso argia duten sektoreetan eta jardueraren eremuetan: giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak babestea eta laguntzea, emakumeak ahaldunduz, Afrika, gatazka eta beste indarkeria-egoera batzuk eta herritar kritikoak sortzea (ekintzak Euskadin).

Jarraian, politikaren irismenari buruzko hainbat datu aurkeztuko ditugu, subjektu diren herritarrei eta 2018-2023an lagundu zaien erakundeei begira. Datuak lortzea zaila izan da, eta jatorrizko datuen kalitatea eta datuak biltzeko, ustiatzeko eta aztertzeko sistemak hobetu behar dira. Horrenbestez, datu hauek 1. helburuaren irismen kualitatiboa neurtzeko hurbilketa orientagarria dira.

## **OROKORRA**

### **Zenbat pertsonari lagundu zaien**

2018-2023 aldian, 4,2 milioi lagun baino gehiagoren ondoan izan gara, Hegoko herraldeetan eta Euskadin. Ebaluazio-txosten honetan, subjektu diren herritar guztiei buruzko kopuruekin bezala, kopuru hori ere hurbilketa gisa ulertu behar da, hainbat arrazoiengatik: besteak beste, 2018-2023 aldian lagundutako ekimen guztietan subjektu izan diren herritarren baliatze ditugu kalkulurako, eta baliteke herritar berak izatea hainbat ekimenen subjektu; hots, baliteke behin baino gehiagotan zenbatu izana.

Behereko tauletan subjektu diren herritarren informazioa jaso da, sexuaren<sup>11</sup> eta kokapenaren arabera bereizita.

---

<sup>11</sup> Sexuaren arabera bereizitako datuetan azpimarratu behar da 2021ean hasi ginela "ez-binarioa" kategoriarekin informazioa biltzen. Ohar hau subjektu diren herritarren taula guztiei dagokie.

**16. taula.** 2018-2023 aldian subjektu izan diren herritarrak, sexuaren arabera bereizita.

<b>Euskadi</b>	<b>765.453</b>
Gizonak	342.233
Emakumeak	419.407
Ez-binarioa	3.813
<b>Hegoaldeko herrialdeak</b>	<b>3.492.072</b>
Gizonak	1.498.441
Emakumeak	1.988.160
Ez-binarioa	5.471
<b>Guztira</b>	<b>4.257.525</b>

**17. taula.** 2018-2023 aldian subjektu izan diren Hegoko herritarrak, sexuaren eta eremu geografikoaren arabera bereizita.

	Afrika	Asia	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea	Nazioartekoa	Hego Amerika	Zehaztu gabe <sup>12</sup>	GUZTIRA
	<b>1.711.037</b>	<b>558.103</b>	<b>672.570</b>	<b>27.344</b>	<b>495.176</b>	<b>27.842</b>	<b>3.492.072</b>
<b>Gizonak</b>	722.776	228.906	306.685	13.316	217.557	9.201	<b>1.498.441</b>
<b>Emakumeak</b>	988.261	326.532	364.500	14.021	276.445	18.401	<b>1.988.160</b>
<b>Ez-binarioa</b>	0	2.665	1.385	7	1.174	240	<b>5.471</b>

**18. taula.** 2018-2023 aldian subjektu izan diren Euskadiko herritarrak, sexuaren eta proiektuak egindako eremu geografikoaren arabera bereizita<sup>13</sup>.

	Afrika	Asia	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea	Nazioartekoa	Hego Amerika	Euskadi	GUZTIRA
	<b>117.553</b>	<b>29.652</b>	<b>37.165</b>	<b>197</b>	<b>14.814</b>	<b>566.072</b>	<b>765.453</b>
<b>Gizonak</b>	61.264	15.492	18.874	38	6.817	239.748	342.233
<b>Emakumeak</b>	55.714	14.154	17.493	159	7.957	323.930	419.407
<b>Ez-binarioa</b>	575	6	798	0	40	2.394	3.813

<sup>12</sup> Iparrean –batez ere Euskadin, gizarte-eraldaketarako hezkuntzako ekimenetan– egindako proiektuetan subjektu izandako Hegoko herritarrak dira. Berdina gertatzen da subjektu izan diren Hegoko herritarren taula guztietan.

<sup>13</sup> Euskadiko zutabeetan, subjektu izan diren Euskadiko herritarrak agertzen dira, bertan egiten diren ekimenetan lagundu zaienak. Eremu geografikoen gainerako zutabeetan, batik bat beste eremu geografikoetan egindako ekimenen baitan lagundu zaien Euskadiko herritarrak jaso dira. Adibidez, ekintza humanitarioko ekimen batzuk Afrikan egin dira batez ere, baina intzidentzia-ekintzak egiten dira Euskadiko herritarrekin, eta horiek dira taulan ageri direnak.


## Zenbat erakunderi eta zer erakunde motari lagundu zaien

2018-2023 aldian, 166 entitate eskatzaileri eta bazkide diren tokiko 378 entitateri lagundu diegu. Entitateak kuantifikatzeko eta, hala, lagundu zaien entitateen mapa zabalagoa eta osoagoa lortzeko, partzuergoekin egindako ekimenetan bai burua, bai partzuergoko kideak diren entitateak kontuan hartu ditugu.

## Zenbat erakunderi lagundu diegun – entitate eskatzaileak

Guztira, 166 entitate eskatzaileri lagundu diegu: horietatik 130 Iparreko entitateak dira; 34, Hegokoak; eta bi, nazioartekoak, Funtsean, Hegoko eta nazioarteko entitateek zuzeneko dirulaguntzak (ZUZ) eta dirulaguntza izendunak (IZE) jaso dituzte.


**07. grafikoa.** 2018-2023 aldian lagundu zaien entitate eskatzaileak, motaren arabera.



## Zenbat erakunderi lagundu diegun – bazkide diren tokiko entitateak

2018-2023 aldian, bazkide diren tokiko 378 entitateri lagundu diegu guztira. Hurrengo grafiko eta tauletan, entitateak aztertuko dira motaren, kokapen geografikoaren, lurralde-irismenaren eta izaeraren arabera.

**08. grafikoa.** 2018-2023 aldirian lagundu zaien eta bazkide diren tokiko entitateak, motaren arabera<sup>14</sup>.




**19. taula.** 2018-2023 aldirian lagundu zaien eta bazkide diren tokiko entitateak, eremu geografikoaren arabera.

<b>Afrika</b>	<b>121</b>
Administrazio / erakunde publikoa	4
Ikerketa-zentroa	1
Elizako erakunde bat / beste erlijio batzuetako	4
Erakunde multilateralak	24
Sindikatuak	2
Elkarte / fundazioak	86
<b>Asia</b>	<b>31</b>
Erakunde multilateralak	4
Sindikatuak	1
Elkarte / fundazioak	26
<b>Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea</b>	<b>117</b>
Administrazio / erakunde publikoa	5
Ikerketa-zentroa	3
Elizako erakunde bat / beste erlijio batzuetako	2
Erakunde multilateralak	8
Sindikatuak	1


<sup>14</sup> Erakunde multilateral gisa sailkatu diren tokiko bazkideen kopurua IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazioan emandakoa baino dezente handiagoa da, bazkide horiek NBE tresnaren jomuga diren NBEko agentziak eta erakundeak direlako, bitarteko ebaluazioan kontuan hartu ez zirenak.

Unibertsitatea	4
Elkarte / fundazioa	94
<b>Nazioartekoa</b>	<b>3</b>
Erakunde multilateral	2
Elkarte / fundazioa	1
<b>Hegoamerika</b>	<b>106</b>
Administrazio / erakunde publikoa	1
Ikerketa-zentroa	1
Erakunde multilateral	5
Sindikatu	1
Unibertsitatea	4
Elkarte / fundazioa	94
<b>Guztira</b>	<b>378</b>


**09. grafikoa.** 2018-2023 aldian lagundu zaien eta bazkide diren tokiko entitateak, eremu geografikoaren arabera.



**10. grafikoa.** 2018-2023 aldian lagundu zaien eta bazkide diren tokiko entitateak, lurralde-irismenaren arabera.



**11. grafikoa.** 2018-2023 aldian lagundu zaien eta bazkide diren tokiko entitateak, izaeraren arabera<sup>15</sup>.



<sup>15</sup> Bazkide den tokiko entitate bat izaera bat baino gehiagokoa izan daiteke. Aitzitik, baliteke besteren bat ez izatea tokiko bazkideei esleitu dizkiegun izaera batekoa ere. Grafikoaren behaldez, eremu laranja, izaera bakoitzeko entitate kopurua ageri da, eta zutabeen goialdean, zer ehuneko den hori bazkide diren tokiko entitate guztien aldean (378).

## BABESA

### Zenbat defendatzaileleri lagundu zaien

2018-2023 aldian, giza eskubideen 182.287 defendatzaileleri lagundu diegu. Gutxi gorabeherako kopuru bat da, subjektu diren Hegoko herritar guztiak kontuan hartu baititugu babesekoak diren edo babesaren elementu garrantzitsuak dituzten ekimenetan.

**20. taula.** 2018-2023 aldian lagundu zaien Hegoko defendatzaileak, sexuaren eta eremu geografikoaren arabera bereizita.

	Afrika	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea	Zehaztu gabe	Hegoamerika	GUZTIRA
	<b>4.206</b>	<b>133.416</b>	<b>5.960</b>	<b>38.705</b>	<b>182.287</b>
<b>Gizonak</b>	1.443	63.398	1.389	18.236	84.466
<b>Emakumeak</b>	2.726	69.891	4.528	20.344	97.489
<b>Ez-binarioa</b>	37	127	43	125	332

### Giza eskubideak babesten dituzten zenbat komunitate, erakunde edo sareri lagundu zaien + Giza eskubideak babesten dituzten zenbat komunitate, erakunde edo sare indartu diren eta zenbat dauden defendatzaileei laguntzeko baldintza hobetan

Ezin izan dira babes-komunitateak, -erakundeak eta -sareak kuantifikatu. Hala ere, hurbilketa gisa esan daiteke Hegoko 46 erakunderi lagundu diegula 2018-2023 aldian, babesekotzat jo ditugun ekimenen bitartez.

## EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

### Zenbat emakumeri lagundu zaien ahalduntze bidean

2018-2023 aldian, 578.977 emakumeri lagundu diegu beren ahalduntze bidean. Gutxi gorabeherako kopurua dela ulertzen dugu, emakumeak ahalduntzea xede duten ekimenen subjektu diren emakume guztiak izan baitira kontuan.

**21. taula.** 2018-2023 aldian beren ahalduntze bidean lagundu zaien emakumeak, eremu geografikoaren arabera bereizita.

Africa	Asia	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea	Euskadi	Zehaztu gabe	Hegoamerika	GUZTIRA
<b>207.818</b>	<b>146.432</b>	<b>72.392</b>	<b>63.377</b>	<b>0</b>	<b>88.977</b>	<b>578.996</b>

## Zenbat erakunde, mugimendu, emakumeen sare edo sare feminista indartu diren

11. *grafikoan* ikusten den moduan, bazkide diren tokiko entitateetatik 90 emakumeen erakundeak ziren, eta 72, erakunde feministak.

## AFRIKA

### Zenbat pertsonari lagundu zaien Afrikan sustatutako ekimenetan

2018-2023 aldian, 1,7 pertsonari lagundu diegu Afrikan. Gutxi gorabeherako kopuru hori lortzeko, Afrikan egiten diren proiektuetako Hegoko herritar guztiak aintzakotzat hartu dira.

**22. taula.** 2018-2023 aldian Afrikan sustatutako ekimenetan lagundu zaien pertsonak, sexuaren arabera berezita.

AFRIKA	TOTAL
	<b>1.711.037</b>
Gizonak	722.776
Emakumeak	988.261

### Afrikako eta Euskadiko zenbat erakunde, mugimendu, emakumeen sare edo sare feminista indartu diren eta haien tipologia

2018-2023 aldian Afrikako 121 erakunderi lagundu diegu tokiko bazkide gisa.

**23. taula.** 2018-2023 aldian lagundu zaien eta bazkide diren tokiko entitateak Afrikan, motaren arabera.

AFRIKA	121
Administrazio/erakunde publikoa	4
Ikerketa-zentroa	1
Elizako erakunde bat / beste erlijio batzuetakoa	4
Erakunde multilateralala	24
Sindikatuak	2
Elkarteak/fundazioak	86

## GATAZKAK ETA BESTE INDARKERIA EGOERA BATZUK

### Zenbat pertsonari lagundu zaien krisietan (gatazkak)

2018-2023 aldian, krisian zeuden 1,3 milioi pertsonari lagundu diegu. Gutxi gorabeherako kopuru hori lortzeko, gatazketan eta beste indarkeria-egoera batzuetan egiten diren ekintza humanitarioko proiektuetako Hegoko herritar guztiak aintzakotzat hartu dira.

**24. taula.** 2018-2023 aldian krisian lagundu zaien pertsonak, sexuaren eta eremu geografikoaren arabera bereizita.

	Afrika	Asia	Erdialdeko Amerika, Mexiko eta Karibea	Zehaztu gabe	Hegoamerika	GUZTIRA
	<b>726.169</b>	<b>440.322</b>	<b>112.173</b>	<b>46</b>	<b>41.765</b>	<b>1.320.475</b>
<b>Gizonak</b>	353.232	177.354	56.420	13	17.322	604.341
<b>Emakumeak</b>	372.937	260.303	55.446	33	24.443	713.162
<b>Ez-binarioa</b>	0	2.665	307	0	0	2.972

### Euskadiko eta tokian tokiko zenbat erakunde indartu diren krisian dauden herritarrak hobeto babesteko

Krisian dauden herritarrak hobeto babesteko indartu diren erakundeak direla eta, 2018-2023 aldian 75 entitateri lagundu diegu tokiko bazkide gisa.

Entitateen gaitasunak indartzeari dagokionez, Euskadiko edo Euskadin ordezkariak duten 25 entitatek eta bazkide diren tokiko 32 entitatek parte hartu dute ekintza humanitarioarekin lotuta eLankidetzak bultzatu dituen trebakuntza-espazioetan 2018-2023 aldian.

## HERRITAR KRITIKOAK

### Zenbat pertsonari lagundu zaien Euskadin

2018-2023 aldian, zazpiehun mila pertsonari baino gehiagori lagundu diegu Euskadin, bertan egindako ekimenen bidez eta beste lurralde batzuetan egin arren Euskadiko herritarrekin intzidentziarako, sentsibilizaziorako eta bestelako ekintzak zituzten ekimenen bidez. Informazio hori *18. taulan* jaso da.

### Zenbat kolektibori lagundu zaien Euskadin eta haien tipologia

Ezin izan ditugu kuantifikatu Euskadin lagundu zaien kolektiboak, ezta haien ezaugarriak modu sistematikoan finkatu ere. Alabaina, eraldaketarako hezkuntza-ekimenei buruz eLankidetzak duen datu-basea ikusita, 2018-2023 aldian onartutako proiektuen lehentasunezko herritarren tipologiak honako hauek dira: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak (12-16 urte), unibertsitateko ikasleak (19-25 urte), unibertsitatekoak ez diren irakasleak, herritarrak oro har (helduak) eta hirugarren sektorea.

### 3.3.2 1. HELBURUA: DATU KUALITATIBOAK

1. helburuaren erdiespena neurtzeko orduan, aurreko ataleko datu kuantitatiboak erabili dira subjektu diren herritarrei eta lagundu zaien erakundeei buruz. Informazio hori ez ezik,

IV. Gida Planeko matrizeak datu kualitatiboak ateratzeko aukera ere mahai gainean jartzen du, Planean konpromiso argia duten sektoreetan eta jarduera-eremuetan izandako aurrerapena ikusteko. Erdiespena honela neurtzea aurreikusi zen: (i) aldaketei buruzko istorio eta esperientziekin eta (ii) sortutako ikaskuntza eta eraldaketekin.

Bitarteko ebaluazioan jaso zen bezala, erdiespena neurtzeko bidean aurrera egin genuen: adibidez, jardunbide egokiak eta ikaskuntzak atera genituen inoiz zenbait-lan ildotan, eta proiektuen (PRO) eta ekintza humanitarioaren (EHE eta PRE) jarraipen-txostenak eta amaierako txostenak eguneratu ziren, informazio kualitatiboa modu sistematizatuan edukitzeko<sup>16</sup>. Haatik, ez da sistema edo tresna espezifiko bat sortu informazioa bildu eta sistematizatzeko.

Azken bi urteotan, ez dugu aurreratu ildo horretan. Bitarteko ebaluazioan adierazi bezala, egiteko horrek zuzeneko zerikusia du ezagutza eta ikaskuntza sortzeko ardatz estrategikoarekin eta, prozesu-matrizearen atalean partekatu dugunez, aurrerabidea ez da izan hasieran planteatutakoa bezain sakona. Beraz, zenbait urtetarako plangintzaren esparruan, ekintzetako bat sektore edo jarduera-eremu lehenetsi bakoitzerako ikaskuntza-ildo bat zehaztea izan beharko litzateke, lankidetzaren politikaren irismenari buruzko informazio kualitatiboa emango diguna.

### 3.3.3 2. ETA 3. HELBURUAK: IV. GIDA PLANAREN IKUSPEGIAK

IV. Gida Planaren bigarren helburuak elkartasunarekiko konpromisoa gure inguruan zabaltzea du xede, eta hirugarrenak, gure jardunbideak hobetzea, garapenaren erronkei egokiro erantzuteko. Bi helburu horiek zuzenean lotuta daude Planak dakartzan ikuspegiarekin: tokikoa-globala konexioa, elkarrizketa estrategikoa, erantzunkidetasuna, norbere ekimena, koherentzia eta koordinazioa, herritar kritikoak, ikaskuntza, berrikuntza eta lankidetzaren deszentralizatuari balioa ematea.

IV. Gida Planaren erdiespen-matrizean ez dago horrela jasota. Hala ere, ebaluazioaren atal honetan, bitarteko ebaluazio-prozesuan bezala, 2. eta 3. helburuen erdiespena hurbildu nahi dugu, ikuspegiarekin lotuz. Horretarako, 2. eta 3. helburuen ebaluazio-galdera eta adierazle batzuk hautatu eta ikuspegiaren arabera antolatu ditugu<sup>17</sup>. Hartara, galdera eta adierazle horietarako emandako informazioa lankidetzaren eta elkartasun-eragileentzako galdetegiaren bildutako erantzunetatik dator nagusiki.

Ebaluazioaren beste atal batzuetan gertatzen den bezala, 2. eta 3. helburuen erdiespenaren hurbilketa hau mugatua da. Edozein kasutan ere, lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren oinarritzko ildoak eraikitzeke abiapuntua eta intsumoa izan daitekeela uste dugu, zenbait urtetarako hurrengo plangintzaren esparruan, edo politikaren irismena neurtzeko helburuez eta mekanismoez berriz hausnartzeko bederen balio dezake.

## BALIOESPEN OROKORRA

2. eta 3. helburuetarako hautatu diren galderak eta adierazleak jorratu baino lehen, eragile sozialek eta eLankidetzak egindako balioespen orokorra jasoko dugu, IV. Gida Planak izandako bulkada politikoaren harira.


<sup>16</sup> 1. helburuaren erdiespenari buruzko informazio kualitatibo zertxobait badugu, baina, aldizkakoa denez (eta beraz, ez behar bezain esanguratsua), ebaluazio honetan ez sartzea hobetsi dugu.

<sup>17</sup> Ariketa hori egitean, erdiespen-matrizeko eta prozesu-matrizeko galdera eta adierazle batzuk antzekoak direla ohartu gara, eta batu egin ditugu.


Datozen grafikoetan ikusiko den bezala, helburu eta ikuspegiari emandako bulkada nahiko positibotzat jotzen da. Bat-etortzea dago aurrerabiderik handiena gertatu den ikuspegiari: lankidetzaren deszentralizatuari balioa ematea.

**1 puntutik 5 puntura bitarte, nolakoak izan da eLankidetzak IV. Gida Planaren helburuak eta ikuspegiak martxan jartzeko emandako bulkada politikoa?**

**Eragile sozialak**




**eLankidetzak**




**1 puntutik 5 puntura bitarte, zenbatekoa izan da IV. Gida Planaren ikuspegiak bultzatzeko aurrerabidea?**

- a.- Tokikoa-globala konexioa.
- b.- Elkarrizketa estrategikoa.
- c.- Erantzunkidetasuna.
- d.- Norbere ekimena.
- e.- Koherentzia eta koordinazioa.
- f.- Herritar kritikoak.
- g.- Ikaskuntza.
- h.- Berrikuntza.
- i.- Lankidetzaren deszentralizatuari balioa ematea.

**Eragile sozialak**



## eLankidetza



## ERANTZUNKIDETASUNA / ELKARRIZKETA ESTRATEGIKOA / NORBERE EKIMENA / BERRIKUNTZA

Elkarren artean argi eta garbi lotuta dauden lau ikuspegiak atal berean batu ditugu. Jarraian, ikuspegi horiekin lotuta dauden galderak eta adierazleak jaso ditugu<sup>18</sup>, eta erantzuten joango gara.





**Eragileek (sozialak, hezkuntzakoak, akademikoak, ekonomikoak eta erakundeetakoak) IV. Gida Plana ezagutzen dute? Erreferentziazko dokumentu bat al da sailen, erakundeen eta eragileen (sozialak, hezkuntzakoak, akademikoak eta ekonomikoak) plangintzan? Eragileen lana orientatzen duten gidalerro argiak finkatzen ditu?**

Erantzunkidetasunaren ikuspegitik, IV. Gida Planak lankidetzaren politikaren oinarri soziala zabaltzearen alde egin du. Alabaina, hurrengo galderatik ondorioztatzen den moduan, nahiz eta eragileek IV. Gida Plana ezagutzen duten —eragile sozialek eta eLankidetzak bereziki— eta dokumentua erreferentzia zaien beren lanean, ez ditu behar bezain argi definitzen eragileen lana orientatzeko gidalerroak. Azken puntu horretan deigarria da zeinen balioespen positiboa egiten duten Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko beste lankidetzaren erakunde batzuek, eLankidetzaren eta eragile sozialen aldean: horien iritziz, IV. Gida Planak ez ditu gidalerro argiak finkatzen.

<sup>18</sup> 3.3.3 atal honetan, erdiespen-matrizean hautatutako ebaluazio-galderak eta -adierazleak urdinez daude.

**IV. Gida Planaren helburuetako bat lankidetzaren politikaren oinarri soziala handitzea da, eta Euskadiko pertsonen, entitateen eta erakundeen elkartasuna eta inplikazioa sendotzea. 1 puntutik 5 puntura bitarte, zer neurritan zaude ados IV. Gida Planaren ezagutzari eta/edo erabilgarritasunari buruzko esaldi hauekin?**

- a.- IV. Gida Plana ezagutzen duzu.
- b.- IV. Gida Plana erreferentziako dokumentu bat da zure plangintzan eta/edo lanean.
- c.- IV. Gida Planak gidalerro argiak finkatzen ditu, eta gidalerro horiek eragileen (sozialak, hezkuntzakoak, akademikoak, ekonomikoak eta erakundeetakoak) lana orientatzen dute.



Zenbat eragileak (sozialak, hezkuntzakoak, akademikoak, ekonomikoak eta erakundeetakoak) lortu den erantzunkide izatea garapenerako lankidetzaren politika gauzatzean, modu gehigarri edo osagarrian, edo GGKE-ekin aliantzan, eta haien tipologia eta inplikazio maila.

Eragileen artean artikulatzeko espazioak bultzatu al dira, diagnostikoak partekatu, ekintzak lehenetsi eta elkarlan espezifikoak zehazteko aukera ematen dutenak? Ezohiko eragileak zer neurritan txertatu diren.

Zenbat ekintza egituratu diren hainbat eragileren artean.


Ebaluazio horren matrize-prozesuari buruzko atal honetan, eragileek modu gehigarri edo osagarrian edo GGKE-ekin aliantzan parte hartu duten eta askotariko eragile eta gaitasunak barne hartu diren ekimenen berri eman da. Besteak beste, sakontasun maila desberdinetan, AUZO(LAN)KIDEAK eta Eusko Jaurlaritzako sailek parte hartu duten ekimenak nabarmendu behar dira, koherentziatik abiatuta. Horri buruzko informazio gehiago dago 2. eranskinean: *Prozesu-matrizea eta lehenetsitako adierazle kuantitatiboak.*

<sup>19</sup> 2018-2024 aldira zehar, hainbat langile berri sartu dira eLankidetzan, eta baliteke horren ondorio izatea IV. Gida Plana neurri desberdinean ezagutzea.

Bestalde, galdera jakin batekin hurreratu gara jorratzen ari garen gaira, eragileek IV. Gida Plana egikaritzeko egin duten ekarpenaren harira. Kontsulta egin zaien eragileen iritzia desberdinak dira, baina bat datoz bi alderditan: eragile sozialek egin dute ekarpenik handiena, batetik, eta eragile ekonomikoek egin dute ekarpenik txikiena, bestetik.

**IV. Gida Plana gauzatzeko lidergoa eLankidetzari dagokio. Hala ere, nolako ekarpena egin dute beste eragile batzuek helburuak erdiesteko? 1 puntutik 5 puntura bitarte, nolako izan da IV. Gida Planaren helburuak martxan jartzeko hainbat eragilek izandako partaidetza?**

- a.- Eragile sozialena.
- b.- Hezkuntzako eragileena.
- c.- Eragile akademikoena.
- d.- Eragile ekonomikoena.
- e.- Eusko Jaurlaritzako sailena.
- f.- Lankidetzarako beste euskal erakunde publiko batzuenak.




**Askotariko eragileak eta gaitasunak modu osoago eta estrategikoago batean egituratzea lortu da?**

Eragile sozialek eta eLankidetzak askotariko eragile eta gaitasunen egituratze oso eta estrategikoari buruz dugun iritzia negatibo samarra da, hurrengo galderaren erantzunak ikusita.

**IV. Gida Planaren 3. helburua behar diren prozedurak hobetzea da, erantzun egokiagoak, osoagoak, estrategikoagoak eta koordinatuagoak emateko garapenaren arazoan arabera. Horiek horrela, 1 puntutik 5 puntura bitarte, zer pentsatzen duzu beheko esaldiei buruz?**

- a.- Egituratze handiagoa lortu da tokiko prozesuen eta mundu mailako dinamiken artean.
- b.- Iparra-Hegoa, lankidetzak-ekintza humanitaria/hezkuntza dikotomia hausteko lanean aurrera egin da.
- c.- Askotariko eragileak eta haien gaitasunak modu osoago eta estrategikoago batean egituratzea lortu da.



## HERRITAR KRITIKOAK

**Herritarren inplikazio solidarioak nolako bilakaera duen eta herritarrek politikari eta lankidetzak eragileei buruz zer pentsatzen duten neurtzeko parametroa.**

Gai hau 2021ean finkatutako adierazleekin lotuta dago, (H)ABIAN 2030 gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren euskal strategiaren oinarritzko ildoan. Strategiaren bitarteko ebaluazioa 2025ean egingo da, eta datuak atera ahal izango dira herritarren inplikazio solidarioak izandako bilakaerari buruz eta herritarrek politikari eta lankidetzak eragileei buruz pentsatzen dutenari buruz.

## TOKIKOA-GLOBALA KONEXIOA

**Zenbat ekintzak laguntzen duten Iparra-Hegoa, lankidetzak-ekintza humanitarioa/hezkuntza dikotomia hausteko lanean. Baliagarriak izan diren tresnak.**

Iparra-Hegoa dikotomia hausteak zuzeneko lotura du tokikoa-globala ikuspegia sustatzearekin. Horren harira, prozesu-matrizearen atalean adierazi bezala, ez da aurrera egin IV. Gida Planean planteatzen den neurri berean. Hala ere, nahiz eta ikuspegi horri buruz hausnartzen eta sustatzen jarraitu beharko den Iparra-Hegoa dikotomia hausteko, alderdi hauetan aurrera egin da 2018-2024 aldian: (i) ikuspegia txertatu da proiektuen (PRO) deialdiko 3. kapituluko (K3) inprimaki eta baremoetan, (ii) tokikoa-globala ikuspegia elementu nagusi gisa finkatu da programen (PGM) tresna berrian, eta lehen deialdia 2024an egin da, eta (iii) intzidentziaren osagaia sustatu da Iparrean, ekintza humanitarioko (EHE eta PRE) ekimenetan.


**Egituratze handiagoa lortu da tokiko prozesuen eta mundu mailako dinamiken artean? Zer tresna izan dira mesedegarriak? Egituratze-ekintzen egokitasuna, IV. Gida Planeko lehentasunak kontuan hartuta. Zer aldaketa eragin ditu egituratze horrek (ikaskuntza, aldaketak politiketan, agendak...)?**

**Aurrera egin da Iparra-Hegoa, lankidetzak-ekintza humanitarioa/hezkuntza dikotomia hausteko lanean? Zer ikasi da? Beste esku-hartze batzuen aldean, irismena desberdina izan da? Horizontaltasun eta elkarrekikotasun handiagoko harremanak lortu dira?**

Eragile sozialek eta eLankidetzak ez dute iritzi positiboa adierazi Iparra-Hegoa dikotomia hausteari buruz eta tokiko prozesuen eta mundu mailako dinamiken arteko egituratzeari buruz. Iritzi negatiboa eLankidetzarena da. Galdera honi egindako iruzkinetan, bai eragile sozialen, bai eLankidetzaren galdetegietan, tokikoa-globala ikuspegiaren gogoetan eta ulermenean sakontzeko beharra eta ikuspegi hori tresnetan zein horien baremoetan txertatzeko erronka jaso da.

**IV. Gida Planaren 3. helburua behar diren prozedurak hobetzea da, erantzun egokiagoak, osoagoak, estrategikoagoak eta koordinatuagoak emateko garapeneren arazoan araberak. Horiek horrela, 1 puntutik 5 puntura bitarte, zer pentsatzen duzu beheko esaldiei buruz?**

- ➡ a.- Egituratzeko handiagoko lortu da tokiko prozesuen eta mundu mailako dinamiken artean.
- ➡ b.- Iparra-Hegoa, lankidetzaren ekintza humanitarioa/hezkuntza dikotomia hausteko lanean aurrera egin da.
- c.- Askotariko eragileak eta haien gaitasunak modu osoago eta estrategikoago batean egituratzea lortu da.



**Eskualde eta mundu mailan egituratzeko zenbat ekintza sustatu diren eta hainbat mailatako zenbat prozesu egin diren.**

Prozesu-matrizearekin lotutako atalean partekatu bezala, eskualde eta mundu mailako ekimenak babestu eta bultzatu ditugu 2018-2024 aldirian, eskualde eta mundu mailako egituratzearen alde egiten dutenak. Horretarako, deialdiak egin eta zuzeneko dirulaguntzak zein dirulaguntza izendunak eman dira. Besteak beste, honako hauek azpimarratu daitezke: La Vía Campesina, hezkuntzaren aldeko munduko kanpaina, emakumeen munduko martxa eta IM-Defensoras, giza eskubideak defendatzen dituzten emakumeen Erdialdeko Amerikako ekimena.

Gainera, hainbat saretan parte hartzen dugu eLankidetzaren gisa: (i) PLATFORMA, garapenerako lankidetzaren modu aktiboan diharduten Europako hiri eta eskualdeen sarea, Euskal Fonda-Lankidetzarako Tokiko Euskal Erakundearen Elkartearekin batera; (ii) RCE Basque Country – Navarre (Garapen Jasangarrirako Hezkuntzako Eskualdeko Zentroa, RCE ingelesezko siglengatik, Nazio Batuen Erakundearen unibertsitatekoa), eta (iii) EUTRP-European Union Temporary Relocation Platform de Protect Defenders, giza eskubideen defendatzaileen babeserako euskal programaren esparruan.

**KOHERENTZIA ETA KOORDINAZIOA**

**Koherentziarako, koordinaziorako eta osagarritasunerako zenbat ekintza egin diren.**

Koherentzia bertikaleko eta koherentzia horizontaleko ekintzen berri eman dugu prozesu-matrizearen atalean, garapenerako politiken koherentzia jorratu denean, eta

2. eranskinean (*Prozesu-matrizea eta lehenetsitako adierazle kuantitatiboak*). Osagarri gisa, lankidetzako eragileen iritzia jasoko da jarraian, gai horretan emandako aurrerapausoen harira. Eta aurrerago, 3.3.5 atalean (*Garapenerako politiken koherentziatik abiatuak bultzatutako ekintzen identifikazioa*), horri buruzko informazio gehiago dago.

Eragile sozialek eta eLankidetzak ez dute oso iritzi positiboa adierazi garapenerako politiken koherentzian lortutako aurrerabideari eta eLankidetzaren eta Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen arteko egituratzeari buruz. Alabaina, aipatzekoa da eLankidetzak eragile sozialek baino iritzi hobea duela Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko egituratzeari buruz.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak dezente iritzi positiboagoa du, eragile sozialen eta eLankidetzaren aldean. Baliteke hala izatea galdetegiari erantzun dioten Eusko Jaurlaritzako kide horiek, hain zuzen ere, eLankidetzarekin egituratutako ekintzetan parte hartzen dutelako.


**Zure ustetan, Eusko Jaurlaritzak garapenerako politiken koherentzian aurrera egin du hizpide dugun aldian?**

**1 puntutik 5 puntura bitarte, nolakoak izan dira garapen jasangarrirako politiken koherentziaren arloan Eusko Jaurlaritzak emandako aurrerapausoak?**


**Eragile sozialek**



**eLankidetzak**




**Eusko Jaurlaritza**




**Zure iritziz, hizpide dugun aldian, eLankidetzak aurrera egin du Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko egituratzean?**

**1 puntutik 5 puntura bitarte, nolakoak izan da eLankidetzaren aurrerabidea Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekiko egituratzean?**


### Eragile sozialak



### eLankidetzak



### Eusko Jurlaritzak



### Erakunde arteko zenbat ekintza egin diren batera.


Erakunde arteko egituratze handiagoa lortu da? Erakundeen arteko koordinazioan zer eduki jorratu diren, zer erabaki hartu diren eta lidergo partekatua zer neurritan onartu den.

Erakunde arteko ekintzen berri eman dugu prozesu-matrizearen atalean, garapenerako politiken koherentzia jorratu denean, eta 2. eranskinean (*Prozesu-matrizea eta lehenetsitako adierazle kuantitatiboak*). Osagarri gisa, lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoen iritzia jasoko da jarraian, gai horretan emandako aurrerapausoen harira.

Hurrengo bi galderen erantzunetan ikusten den bezala, balioespen positiboa egin dute, bereziki eLankidetzak eta lankidetzarako Euskadiko erakundeek. Galdera horretan idatzitako iruzkinetan, mugarri hauek nabarmendu behar dira: 3/2024 Legearen bueltan egindako lana, AKUAL Ertamerika-Euskadi ur eta saneamenduaren arloko erakunde arteko lankidetzak-programa eta euskal lankidetzak publikoaren ataria.

Zure iritziz, hizpide dugun aldian, aurrerapausoak eman dira lankidetzarako Euskadiko erakundeen arteko egituratzean eta koordinazioan? 1 puntutik 5 puntura bitarte, nolako aurrerapausoak eman dira lankidetzarako Euskadiko erakundeen arteko egituratzean eta koordinazioan?


### Eragile sozialak



### eLankidetzatza




### Lankidetzarako Euskadiko erakundeak



### 1 puntutik 5 puntura bitarte, nolakoak izan dira Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde Arteko Batzordeak bideratutako koordinazioa eta egituratzea?

- a.- Jorratu diren edukiei dagokienez.
- b.- Hartutako erabakiei dagokienez.
- c.- Aldizkakotasunari dagokionez.
- d.- Lidergo partekatuari dagokionez.
- e.- Ikuspegi partekatuari dagokionez.

### Lankidetzarako Euskadiko erakundeak



Azkenik, bloke hau itxi baino lehen, eragileek Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluari buruz adierazitakoa jasoko dugu. Aipatzekoa da Kontseiluan 2018-2024 aldian noizbait parte hartu dutenek soilik erantzun dietela galdera horiei. Alegia, Euskadiko eragile sozialen arteko sei lagunek (inkestari erantzun dieten 31 lagunen artean), lankidetzarako Euskadiko erakundeetako hiru lagunek (bosten artean) eta Eusko Jaurlaritzako lau lagunek (zortziren artean).

## Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua dinamizatu da eta ikuspegi estrategikoagoa eman zaio (eztabaidak, proposamenak, eraikuntza kolektiboa...)?

Galderaren erantzunetan ikusten da adostasun argia dagoela Eusko Jaurlaritzaren eta lankidetzarako Euskadiko erakundeen artean: bai, ikuspegi estrategikoagoa eman zaio Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluari. Haatik, eragile sozialen iritzia ez da hain positiboa.

### Zure aburuz, ikuspegi estrategikoagoa eman zaio Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluari (eztabaidak, proposamenak, eraikuntza kolektiboa...)?

Eragile sozialen erantzunen % 50en, Eusko Jaurlaritzako erantzunen % 100aren eta lankidetzarako Euskadiko erakundeen erantzunen % 100aren arabera, ikuspegi estrategikoagoa eman zaio Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluari.


## Askotariko eragileak sartzea lortu da? Nola balioesten dute Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua, jorratutako edukiak, eragileen partaidetza-maila, denborak, hartutako erabakiak eta beste alderdi batzuk direla eta? Lidergo partekatua zer neurritan onartu diren (gai-zerrendan proposatutako gaiak, gaiak azaltzea...).

Eragileek iritzi desberdinak dituzte Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluari buruz. Euskadiko eragile sozialen iritzi positiboa mugatua da, eragileen partaidetza mailari eta aldizkakotasunari dagokienez bereizi. Eusko Jaurlaritzak eta lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoek, aldiz, oso irakurketa positiboa egin dute.


### 1 puntutik 5 puntura bitarte, zer irizten diozu Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluari, gai hauen harira?

- a.- Jorratu diren edukiak.
- b.- Eragileen partaidetza maila.
- c.- Aldizkakotasuna.
- d.- Hartutako erabakiak.
- e.- Lidergo partekatua.
- f.- Ikuspegi partekatua.
- g.- Funtzionamendua.


### Eragile sozialak



## Eusko Jaurlaritz



## Lankidetzarako Euskadiko erakundeak



## LANKIDETZA DESZENTRALIZATUARI BALIOA EMATEA


**Aitortzen al da eLankidetz**a eta Euskadiko lankidetza publikoa eragile garrantzitsu gisa estatuko, Europako eta munduko lankidetza deszentralizatuan? Zer elementu bereizgarri esleitzen zaizkio?

Kontsulta egin zaien hiru eragile-taldeak ados daude, eLankidetza eta Euskadiko lankidetza publikoa garrantzitsua delakoan estatuan. Ez dute iritzi bera Europan eta munduan aitortzen zaion garrantziari buruz. Lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoek (eLankidetza ez dago horien artean) adierazi dute iritzirik positiboena gai honetan.


Aitortzen al da eLankidetza eta Euskadiko lankidetza publikoa eragile/lankidetza garrantzitsu gisa estatuko, Europako eta munduko lankidetza deszentralizatuan? Adierazi zure iritzia 1 puntutik (garrantzi txikiena) 5 puntura bitarte (garrantzi handiena).

- a.- Garrantzia estatuan.
- b.- Garrantzia Europan.
- c.- Garrantzia munduan.


### Eragile sozialak



### eLankidetza



### Lankidetzarako Euskadiko erakundeak



### IKASKUNTZA

Jarduera estrategikoko ardatz guztietan egin al dira trebakuntza-ekintzak, esperientzia- eta jakintza-trukeak, ebaluazioa, esperientzien sistematizazioa, gaitasunak indartzea, etab.? Jardunbide hobekak identifikatu al dira sortutako ikaskuntza eta ezagutzatik?

Planaren jarduera estrategikoko ardatz guztietan (sektore eta jarduera-eremu lehenetsiekin lotuta) trebakuntza-ekintzak, esperientzia-trukeak eta abar jasotzen dira. Hala ere, ebaluazio honen prozesu-matrizearen atalean adierazi bezala, aurrerabidea desberdina izan da ardatz bakoitzean. Horregatik, hemen ez gara luzatuko ezagutza eta ikaskuntza sortzeari buruzko kontuetan, jada jorratu baitira oro har 3.2.8 (*Ezagutza eta ikaskuntza sortzea*) eta 3.3.2 (*1. helburua: datu kualitatiboak*) puntuetan.

## BALIOESPENA ELANKIDETZARI


Atal hau IV. Gida Planaren ikuspegiaren arabera antolatu da, eta, bukatzeko, eragile sozialen gogobetetasunari buruzko erreferentzia bat dakargu, eLankidetzari dagokionez. Alderdi hori 3. helburuaren erdiespen-matrizean sartu da.

### Eragileen gogobetetasuna eLankidetzari dagokionez: ekimenetan laguntzea, izapideak eta kudeaketa, komunikazioa, Plana gauzatzea...

Eragileek iritzi desberdina dute eLankidetzari buruz, gaia zein den. Ebaluazio honen aurreko ataletan adierazi da erronka garrantzitsuak ditugula aurrez aurre, ezagutzaren eta ikaskuntzaren harira. Nolanahi ere, Euskadiko eragile sozialek iritzirik onena adierazi dute eLankidetzak bideratutako trebakuntza-espazioekin eta topaguneekin lotuta. Aitzitik, iritzirik negatiboena izapideei eta kudeaketari dagokie.

#### 1 puntutik 5 puntura bitarte, zer irizten diozu eLankidetzari gai hauetan?


- a.- Ekimenetan laguntzea.
- b.- Izapideak eta kudeaketa.
- c.- Komunikazioa.
- d.- eLankidetzak bideratutako trebakuntza-espazioak eta topagunak.
- e.- Gardentasuna.



Eragile sozialek eLankidetzatik jasotzen duten informazioa dela eta, kalitate handieneko informazioa webgunearen bidez jasotzen dela uste dute.

1 puntutik 5 puntura bitarte, nolako kalitatea du eLankidetzatik bitarteko hauetan jasotzen duzun informazioak?

#### Eragile sozialak



### 3.3.4 AUZO(LAN)KIDEAK EKIMENAREN BALIOESPENA

2018-2024 aldian, eLankidetzak askotariko ekimen adierazgarri bultzatu ditu: AUZO(LAN)KIDEAK. Ekimen horiekin, IV. Gida Planaren ikuspegiak indartu nahi izan ditugu, hots, tokikoa-globala konexioa, elkarrizketa estrategikoa, erantzunkidetasuna, norbere ekimena, koherentzia eta koordinazioa, herritar kritikoak, ikaskuntza, berrikuntza eta lankidetzaren deszentralizatuari balioa ematea.

AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen xedea lan egiteko modu berriak bilatzea izan da, elkarrizketa gehiagorekin. Era berean, gaitasunak neurri handiagoan aprobetxatzea sustatu da, eta ikaskuntzak sortu, norbere esperientziari jarraikiz. Hori guztia erronka zehatzei helduz gauzatu nahi zen, multzo oso baten ikuspegiarekin eta hainbat eragilarekin elkarlanean.

IV. Gida Planean 10 AUZO(LAN)KIDEAK ekimen jaso ziren, Plana onartu zenean izaera eta garapen maila desberdinean zeudenak. 10 ekimen adierazgarri horiek honela multzokatu daitezke:

#### Arlo estrategikoen proposamena abian jartzea:

1. AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: gatazkak eraldatzea eta bakegintza
2. AUZO(LAN)KIDEAK EKONOMIAN: eredu ekonomiko solidarioa

#### Eusko Jaurlaritzaren garapen jasangarrirako politiken koherentziatik abiatuta, ekimenak bultzatzea:

3. AUZO(LAN)KIDEAK GIZA ESKUBIDEEN ALDE: enpresak eta giza eskubideak
4. AUZO(LAN)KIDEAK EROSTERAKOAN: erosketa publiko arduratsua
5. AUZO(LAN)KIDEAK MUNDUAN

#### Ekimenak, lankidetzarako Euskadiko erakundearen koordinazioaren esparruan:

6. AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN: urari buruzko erakunde arteko programa
7. AUZO(LAN)KIDEAK KOMUNIKAZIOAN

#### IV. Gida Planaren lehentasun zehatzak garatzea, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin koordinatuta

8. AUZO(LAN)KIDEAK HEZKUNTZAN
9. AUZO(LAN)KIDEAK TEKNOLOGIAN
10. AUZO(LAN)KIDEAK INGURUMENEAN

IV. Gida Planean finkatu zen AUZO(LAN)KIDEAK ekimenak zenbait urtetarako plangintza gauzatzeko aldia amaitutakoan ebaluatuko lirakeela. Alegia, esperientzien multzoa balioesteko asmoa zegoen, eta, balizko beste ebaluazio eta sistematizazio batzuekin batera, apustua balioesteko lagungarria izatea nahi zen, bai eta erabakitzen lagundu ere ea komenigarria zen metodologiak eta lan egiteko modu koordinatuagoak eta koherenteagoak modu egituratuan eramatea Euskadiko lankidetzaren jarduera-esparrura.

eLankidetzan, 2024ko ekainaren 26an egindako barneko lan-saio batean, AUZO(LAN)KIDEAK ekimen bakoitzaren irismena aztertu genuen, eta mesedegarri suertaturiko palankak zein mugak eragin zituzten oztupoak identifikatu genituen. Hori ez ezik, aurretiko balioespen bat egin genuen, ea esperientzia horrek hurrengo plangintzaldian bidean jarraitu behar duen eta nola. Hona hemen espazio horretan ondorioztatu zenaren laburpen bat:

- **AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen garapena eta irismena oso desberdina izan da.** Ekimen adierazgarriren bat hasieran aurreikusitakoa baino neurri handiagoan garatu da; esate baterako, AUZO(LAN)KIDEAK ELKARREKIN: urari buruzko erakunde arteko programa. Izan ere, AKUAL programaren hirugarren edizioa 2024an hasi zen. Alabaina, beste ekimen batzuek ez zuten ia aurrera egin eta baztertu egin ziren IV. Gida Planaren luzapena zehazteko prozesuan: garapen jasangarrirako politiken koherentziatik abiatutako ekimenekin lotuta dauden hiru AUZO(LAN)KIDEAK. Beste zenbait hasieran aurreikusitakoa ez zen beste ekimen batean gauzatu ziren; adibidez, AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN: gatazkak eraldatzea eta bakegintza. Horren baitan, ez zitzaion erronkari heldu mundu mailako erronka partekatu baten ikuspuntutik, baizik eta Kolonbian soilik jarri zen arreta, Kolonbia mahaiaren bidez.
- **Aukera galdua?** AUZO(LAN)KIDEAK garatzeko osotasuneko ikuspegitik, aukera bat galdu delako sentazioa dago, batik bat eremu estrategikoen proposamen berriaren —AUZO(LAN)KIDEAK 1 eta 2— eta garapenerako politiken koherentziarekin lotutako ekimenen —AUZO(LAN)KIDEAK 3, 4 eta 5— oso inplementazio mugatuagatik. Dena den, aldi berean, AUZO(LAN)KIDEAK ekimenei beste lankidetzaren modu batzuk esploratzeko aukera eman digute, eta horri balioa ematen zaio.
- AUZO(LAN)KIDEAK martxan jartzean, **garapenari eta irismenari lagungarri izan zaizkion palanka hauek** identifikatu dira:
  - Proposamen zehatz bat egotea AUZO(LAN)KIDEAK garatzeko. Hau da, IV. Gida Plana zehazteko orduan definituta eta argi zeuden ekimen adierazgarriek aurrera egin dute nabarmen.
  - eLankidetzaren barnean lidergo argiak egon dira eta aurreikusitako denbora eskaini da AUZO(LAN)KIDEAK sustatzeko.
  - Ekimen adierazgarrietako batzuetan aritu diren eragileek baterako ikuspegia, borondate partekatua eta gaian interesa izan dute.
  - Eusko Jaurlaritzaren barruan, ekimen adierazgarriak garatzeko pertsona garrantzitsuak identifikatu dira. Erakundeek egin ditzaketan apustuez gain, egiaztatu da oso garrantzitsua dela AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen garapenean konpromisoa eta gogoia erakusten dituzten pertsonak egotea.
  - AUZO(LAN)KIDEAK ekimenei ekintzak inplementatzeko malgutasuna eta aldaketetara egokitze gaitasuna izatea.
  - Aurretiko lan-egitura edo -espazioa izatea, ekimen adierazgarri berriak garatzeko; esate baterako, (H)ABIAN 2030en Komunikazio Batzordea AUZO(LAN)KIDEAK 7rako.

- AUZO(LAN)KIDEAK martxan jartzean, **garapena eta irismena mugatu dituzten oztopo hauek** identifikatu dira. Zenbait kasutan, palanken ifrentzua dira:
  - Zenbait AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen argitasunik eza edo horiekin sustatu nahi denaren argitasunik eza. Egiaztatu da ez dela erraza zerbait hutsetik eta ideia argi bat gabe sortzea.
  - AUZO(LAN)KIDEAK ekimen batzuen lidergoa Eusko Jaurlaritzako beste instantzia batzuei zegokien, eta ez eLankidetzari, haien izaera medio. eLankidetzak mugatuta egon da ekimen jakin batzuetan laguntzeko, bulkada beste instantzia batzuei zegokienean.
  - eLankidetzaren baitan, ekimen adierazgarrien burua taldeko nor izango ziren zehaztuta ez egotea eta, horrekin batera, pertsona horiek AUZO(LAN)KIDEAK sustatzeko denborak ez finkatzea.
  - Zenbait AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen esparruan ekintza solteak zehaztea, ikuspegi osorik gabe.
  - Zenbait AUZO(LAN)KIDEAK ekimenetan dei egindako eragile batzuen konpromiso falta edo erresistentzia.
  - AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen gai batzuetan, eLankidetzaren ezagutza mugatua; adibidez, kontu teknologikoekin lotuta. Horrek proposamenak egiteko gaitasuna eta sormena baldintzatzen ditu.
  - Horrelako ekimen adierazgarriak erakundeen logiketan sartzeko zailtasuna, lan egiteko modu berria baita, eragile askokoa eta elkarrizketa gehiagorekin.
  
- **Etorkizunerako begiradak.** Lan-saioan ez zen apustu zehatzik egin AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen etorkizunari buruz, baina gogoeta egin zen. eLankidetzaren hurrengo plangintzan, AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen etorkizuna zehaztu beharko da intsumo hauek abiapuntutzat hartuta:
  - eLankidetzak AUZO(LAN)KIDEAK bultzatzeko duen gaitasuna aztertu behar da errealistak izanik, eta ahalmen handiena dutenak lehenetsi beharko dira.
  - Oro har, egoki irizten zaio AUZO(LAN)KIDEAK ekimenen esparruan azken urteotan egin diren ekimenekin jarraitzeari. Haatik, zalantzak daude ekimen horiek AUZO(LAN)KIDEAK planteatu ziren helburuei erantzuten ote dieten.
  - eLankidetzak sustatzen duen *ekimen desberdin oro* AUZO(LAN)KIDEAK ekimen bat izan behar delako tentazioa gainditu behar da, eta horretan ados gaude.
  - Horregatik guztiagatik, egokia iruditzen zaigu AUZO(LAN)KIDEAK ekimenekin zehazki zer nahi dugun berriz pentsatzea: zer ezaugarri dituen, zer logika dituen, etab. Eta, horren arabera, AUZO(LAN)KIDEAK izango dira planteamendu horri erantzuten dioten ekimenak soilik.

### Kolonbia mahaiaren ebaluazioa / AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN

IV. Gida Planaren lehen bi AUZO(LAN)KIDEAK honako hauek izan ziren: BAKEAN eta EKONOMIAN. Ereku estrategikoen proposamena garatzea zuten xede, topaguneak eta aukera-espazioak aurkitu eta, hartara, jarduera-estrategia koordinatuagoak, osoagoak eta egituratuagoak zehazteko, baita bi erronken (gatazkak eraldatzea eta bakegintza, eta eredu ekonomiko solidarioa) erantzunean balio erantsia sortzeko ere. Urte hauetan ez da lortu eremu estrategikoak IV. Gida Planean aurreikusitako logika horrekin garatzea, ordea.

AUZO(LAN)KIDEAK BAKEANen kasuan, espazioak Kolonbia mahaiarekin bat egin zuen, eta eragile askoko espazio gisa funtzionatu du, geografikoki Kolonbian mugatua. Hala, ez da hasieran aurreikusita bezalako eremu estrategikoaren espazioa izan.

2023an, Kolonbia mahaia osatzen duten eragileentzako galdetegiaren bidez, esperientziaren barneko ebaluazioa egin zen. Hona hemen ondorio nagusiak:

- Espazio estrategiko bat dela uste da, eta jarraitzeko apustua egin da, Kolonbiako bakegintzara mugatuta.
- Ezagutzak, esperientziak eta egituratzeko moduak partekatzeko ahalmena du.
- Orain arte, hiru mugari erdietsi dira:
  - Egia argitzeko, bizikidetzarako eta gertatutakoa ez errepikatzeko Batzordearen txostena Euskadin aurkeztu zen.
  - Caucako iparraldeko etniarteko eta kulturarteko lurralde-kontseiluari laguntzeko ekimena egin zen.
  - Baterako adierazpenak egiteko protokoloa sortu zen.
- Politikak egituratzea eta koherenteak izatea heldu beharreko erronkak dira oraindik.
- Kolonbian ildo esanguratsuetan dabilzan eragile gehiago egotea proposatu da.
- Topaketen aldizkakotasuna eta formatua berrikusi behar dira.

### 3.3.5 EKINTZEN KATALOGOA, GARAPEN JASANGARRIRAKO POLITIKEN KOHERENTZIATIK ABIATUTA

IV. Gida Planaren erdiespena neurtzeko atal honetan, eta IV. Gida Planaren 2. eranskinarekin lotuta (Eusko Jaurlaritzaren beste ekintza batzuen mapa), Eusko Jaurlaritzako sail, entitate eta erakunde autonomoek 2018-2023 aldian egindako ekintzen mapa eguneratua jaso dugu, eLankidetzarekin batera edo beren kabuz, eta garapen jasangarrirako politiken koherentziatik abiatuta. Kasu askotan, ekintza horiek Garapenerako Dirulaguntza Ofizial (GLO) gisa zenbatu dira.

2018-2023 aldian 77 ekintza identifikatu dira guztira<sup>20</sup>. Aipatzekoa da ekintza gehienak aldi horretako zenbait urtetan egin direla.

Jarraian, 77 ekintzen azterketa labur bat egingo da. Ekintza bakoitzari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi 3. eranskina: *Ekintzen katalogoa, garapen jasangarrirako politiken koherentziatik abiatuta*.

- Ekintzak **sektoreko arlo generikoaren** arabera antolatu dira, hots, ez da erabili ekintzak sustatu dituen Eusko Jaurlaritzako sail jakinaren izena, aldatu egin baitira IV. Gida Plana inplementatu den urteetan. Ekintza gehienak sektoreko bost arlo hauek dira: giza eskubideak, 15; osasuna, 11; migrazioa eta asiloa, 9; EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea, 9; hezkuntza, 9; eta IHOBE-Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoa, 5.

<sup>20</sup> Ekintzak identifikatzeko orduan, honako hau hartu dugu aintzakotzat: (i) eLankidetzaren lankidetzaren ekimenen zerrenda, Eusko Jaurlaritzako beste sail, entitate eta erakunde autonomo batzuekin batera edo elkarlanean bultzatutakoak; (ii) Eusko Jaurlaritzako beste sail, erakunde eta organismo batzuen lankidetzaren ekimenen zerrenda, eLankidetzaren urteko memorietan GLO gisa jasotzen ditugunak; eta (iii) lankidetzarekin lotutako ekintzen zerrenda, Euskadi-Basque Country Estrategia 2025en esparruan jasotakoak.

- Orobat, osagarritasun, koordinazio edo koherentziaren irizpideak ere erabili dira ekintzak katalogatzeko, eLankidetzarekiko —eta, beraz, lankidetzarako eta elkartasunerako politikarekiko— **harremanaren intentsitatea** zein izan den.
  - Osagarritasuna: 47 ekintza edo lan-espazio, beste sail, entitate edo erakunde autonomo batzuek norbere ekimenez sustatu dituztenak, eLankidetzak neurri handiagoan parte hartu gabe.
  - Koordinazioa: 28 ekintza edo lan-espazio partekatu, elkarlanerako eta elkarrizketarako aukera gehiago ematen dituztenak eLankidetzaren eta beste sail, entitate edo erakunde autonomo batzuen artean.
  - Koherentzia: 2 ekintza edo lan-espazio, osotasun handiagoa dutenak eta baterako begirada gehiago garatu dena.
- Azkenik, identifikatu da ea ekintzetan **lankidetzaren tekniko** elementuak edota Eusko Jaurlaritzako sail, entitate edo erakunde autonomoetako langileen **ezagutzaren mugikortasun**-elementuak txertatu diren edo ez. Identifikatu diren 77 ekintzen artean, 15ek lankidetzaren tekniko elementuak dituzte. Besteak beste, azpimarratzekoak dira Ginea Bissau-Euskadi Osasun Globaleko programa eta AKUAL Ertamerika-Euskadi ur eta saneamenduaren arloko erakunde arteko lankidetzaren programa; lehenengoan, Osakidetzak eta Osasun Sailak parte hartzen dute, eta bigarrenean, berriz, URA-Uraren Euskal Agentziak eta EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeak.

Identifikatutako ekintzez gain, kontseiluak, batzordeak, foroak eta mahaiak daude sailen artean lan egiteko, erakundearen artean lan egiteko edo lan mistoa egiteko, eragile sozialekin. Horien artean, 2018-2024 aldian sortutako bi organo nabarmendu nahi ditugu, garapen jasangarriko politiken koherentzia aurrera egiten lagundu dezaketenak: (i) Trantsizio Sozialerako eta 2030 Agendarako Eragile Anitzeko Foroa Euskadin<sup>21</sup>, 2021ean sortutakoa, eta (ii) sailen arteko mahaiak Ekialde Hurbileko eta Ertaineko gatazkaren ondorio humanitario eta sozioekonomikoen inguruan<sup>22</sup>, 2023koa.

<sup>21</sup>[https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021004183&BOPV\\_HIDE\\_CALENDAR=true](https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2021004183&BOPV_HIDE_CALENDAR=true)

<sup>22</sup> <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/89030>

## 4. KANPOKO ADITUAREN BEGIRADA

Ebaluazio-prozesu honetan beste begirada bat edukitzeko asmoz, funtsean barneko ariketa izan baita, eLankidetzakoa (eta euskal lankidetzakoa) ez den norbaiti azterketa bat egiteko eskatu zitzaion, zehazki, IV. Gida Planak (eta irismenak) eta 3/2024 Legeak elkar topatzen duten puntuei buruz eta, bereziki, lege horrek datorren plangintza-prozesuan ekarriko dituen erronkei buruz. Azterketa Manuela Mesari<sup>23</sup> eskatu zitzaion.

Jarraian haren lanaren laburpena jaso da, bi bloketan antolatuta. Lehenik, adituaren ustez euskal lankidetzak berezkoak dituen elementuak zerrendatzen dira, indarguneen eta berezitasunen ibilbide sendoaren parte diren neurrian gordetzea egoki iruditzen zaionak. Bigarrenik, adituaren aburuz eLankidetzaren etorkizuneko plangintzan kontuan hartu behar diren proposamenak eta gomendioak aurkezten dira. Bigarren zatian, aldaketak egin behar diren alderdiak identifikatzen dira bereziki, euskal lankidetzak eta elkartasuna nazioarteko testuinguru berriaren beharretara egokitzeko eta, halaber, lankidetzak politikaren hedapena hobetzeko prozesuaren parte gisa.

### Ondo egiten dena eta gorde behar dena

**Lan-ildoak.** Euskal lankidetzak oso ibilbide sendoa du ongi definitutako lan-ardatz batzuen inguruan: genero, giza eskubideak edota gatazkak eta beste indarkeria egoera batzuk. Ardatz horiekin jarraitzea eta sendotzea egoki ikusten da.

**Politika publikoko eragile ugariak.** Politika publikoan, elkarlana estua izan da administrazioaren eta beste eragile batzuen artean. Eragile horien izaera askotarikoa da eta GGKEak dira bereziki. Maila askoko logika bati jarraitzen zaio (mundukoa, estatukoa, autonomia-erkidegokoa eta tokikoa), baina lurraldeari eta euskal gizartearen hainbat sektoreri lotua. Lankidetzan eta elkartasunean diharduten eragileak gehiago izateko apustuari eutsi behar zaio euskal sektore publikoan eta beste lankidetzak-plataforma batzuetan.

**Politiken koherentzia.** Garapen jasangarrirako politiken koherentziaren erreferentziatzko esparruak ekintzak gidatzen ditu. Baliotsua da erakundeetako eta gizarte zibileko eragileak koordinatzea eta egituratzea, konfiantzazko espazioak sortzea eta erakundeen artean baterako ekintzak egitea. Koordinazioa eta osagarritasuna bilatzea sustatzen jarraitu beharreko zeregin bat da.

**Gaitasunak indartzea eta epe luzean laguntzea.** Euskal lankidetzak gaitasunak indartzea eta epe luzean laguntza-prozesuak egitea lehenetsi du, eta bereizgarri zaio jardun hori, laguntza-programa ohikoagoak alde batera uzten ditu eta.

**Izaera berritzailea lan-ardatzak definitzean.** Euskal lankidetzak ardatz sektorial eta geografikoez harago ulertzen ditu lankidetzak-ekintzak, eta beste jarduera-eremu batzuk txertatzen ditu, berri eta berritzaile direnak; adibidez, tokikoa-globala ardatza, bakegintza eta ezagutza sortzea.

---

<sup>23</sup> Manuela Mesa Soziologia eta Antropologiako doktore da Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean. Bakerako hezkuntzaren eta ikerketaren CEIPAZ zentrokotuzendaria da, eta giza eskubideen, demokraziaren, bakearen kulturaren eta indarkeriarik ezaren unibertsitate-institutuko (DEMOSPAZ-UAM) zuzendarikidea. Eskarmentu luzea du lankidetzaren, elkartasunaren eta giza eskubideen eremuan, bai entitate sozial eta akademikoekin, bai erakunde publikoekin. Ikertzaile gisa, bakearen, bakerako hezkuntzaren eta herritartasun globalaren ikasketetan espezializatuta dago. Irakasle jardun du Espainiako eta nazioarteko unibertsitateetan, eta hainbat ikerketa-proiektu zuzendu ditu arlo hauetan: indarkeria transnazionala eta gatazkak prebenitzea Latinoamerikan, herritartasun globalerako komunikazioa eta hezkuntza, generoa eta bakegintza.

**Berdintasunerako agendaren aldeko apustua.** Emakumeak ahalduntzeko eta generoa zeharka txertatzeko apustua konpromiso sendoa da berdintasunerako agendarekin. Horrekin batera aipatzekoa da genero-berdintasunaren aldeko aldaketa-prozesuak eta erakunde feministak babesten dituela. Horri guztiari ekintza positiboak gehitzen zaizkio, lankidetzaren ikuspegi feminista indartzen dutenak.

**Giza eskubideen ikuspegia.** Ikuspegi hau gauzatzen da lurraldeetan eskubideen titular diren pertsonen eta kolektiboek lagunduz. Gainera, giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak, komunitateak eta sareak babesteko ekintzek ibilbide esanguratsua dute euskal lankidetzan. Nazioartean atzera egiten ari den, giza eskubideak urratzen diren eta nazioarteko zuzenbide humanitarioa urratzen den honetan, ikuspegi honi eustea eta hura indartzea oso garrantzitsua da.

**Tokikoa-globala ikuspegia.** Egokitzen jotzen da tokiko prozesuen garrantzia eta tokiko eragileei ematen zaien laguntza mantentzea, garapena sustatzeko. Hala, eragile sozialen eta erakundeetako eragileen arteko egiturari lagunduko zaio lurraldeetan eta mundu mailan.

**Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren garrantzia.** Gizarte-eraldaketarako hezkuntzaren euskal estrategiak, (H)ABIAN 2030ek, hainbat ekintza proposatzen ditu hezkuntza bera sustatzeko eta hezkuntzak gizarte ekitatiboan eta solidarioen bidean duen zeregina bultzatzeko 2030 Agendaren esparruan.

**Ezagutzaren eta komunikazioaren kudeaketa.** Azterlanek eta ikerlanek pentsamendu kritikoa sustatzen dute eta ebidentziak zein ezagutza eskaintzen dituzte lankidetzaren estrategiak, -ekintzak eta -prozesuak hobetzeko eta diskurtsoaren eta praktikaren arteko arrakala gainditzeko. Gainera, datuak biltzeak, ebaluazioek eta sistematizazioek lankidetzaren ikuspegi zabala edukitzeko eta jarduera-esparru berriak esploratzeko aukera ematen dute. Bereziki, euskal lankidetzaren publikoaren ataria, memoriak eta informazioaren bilketa sistematikoa baliotsuak dira eta mantendu egin behar dira.

**Lankidetzaren deszentralizatua berrestea.** Lankidetzaren deszentralizatua funtsezko eragileen multzo bat da eta ikuspegi zein estrategia bereziak eta bereziak ditu. Gizartearen eta lurraldearen partaidetza bultzatzen du, lan-ildo berritzaileak garatzen ditu eta ezagutzak zein jardunbide egokiak eskaintzen ditu.

## Hurrengo plangintzarako proposamenak eta gomendioak

### Testuingurua

Zenbait urtetarako hurrengo planean kontuan hartu behar da krisi askoko testuingurua dela nazioarteko sistemakoa, eta testuinguru horri eragiten dioten arazoekin lotutako alderdi jakin batzuk jaso beharko lirake hartan. Hori ezin du 3/2024 Legeak egin, epe ertainerako planteatu delako eta adostasun politikoaren emaitza delako. Haatik, zenbait urtetarako planean, plangintza-tresna den neurrian, honako hau jaso behar da:

- *Kontakizun edo narratiba inspiratzaile eta mugiarazle bat*, nazioarteko sistemaren eta mundu-mailako garapenaren une larrian gaudela aitortu eta itxaropen-horizonte bat eskaintzen duena, euskal gizartearen adoretu eta ekintza kolektiboan zein elkartasunean jarduteko.

- *Garapenaren, demokraziaren, ingurumenaren eta nazioarteko ordenaren krisia larria dela aitortzeko beharra.* Zenbait urtetarako planean aintzakotzat hartu behar da demokrazia une zailean dagoela mundu osoan. Inkesten arabera, herritarrek aspaldi ez bezalako konfiantza txikia eta gogobetetasun eskasa adierazten dute

funtzionamenduarekin, eta indar iliberalak eta eskuin-muturrekoak goraka ari dira. Aitortu behar da herritarren gaitzatea, muturreko nazionalismoaren gorakada eta egungo tentsio politikoak lotuta daudela, gogoan izanik horrek guztiak ordena multilateral eta mundu mailako gobernantza higitzen dituela. Larrialdi klimatikoaren larritasuna ere jorratu beharko luke. Halaber, 2030 Agendaren adierazleetan erregistratu diren aurrerapen urriak eta, are, atzerapausoak behar bezala aztertu beharko lirateke. Ildo beretik, garapen jasagarria egungo eta etorkizuneko belaunaldiekin kontratu soziala mundu mailan eraikitzeke erronkaren parte dela azpimarratu behar da, eta garapen-eredu inklusiboagoa behar da horretarako, demokrazia soziala suspertzeko gauza dena.

- *Hego globalaren kontzeptuari buruzko hausnarketa*. Hitzaurrean, 3/2024 Legea aditzera ematen du Hegoko herrialdeak eta lurraldeak direla, “planetaren hegoaldeko hemisferioan egon gabe ere, bidegabekeria sistematikoak jasan dituzten herrialde eta lurraldeak”, eta planteatzen du “garapen-arazoek batez ere Hegoaldeko herritarren txirotasunarekin eta ongizate-gabeziarekin dutela zerikusia, baina ez dira horretara mugatzen”. Zenbait urtetarako planean garapenaren ikuskera zabalago batekin osatu behar da ikuspegi hori: Hegoko herrialde eta herriei zeregin nagusia emateari utzi gabe, mundu mailako ondasun publikoen kudeaketa, berrikuntza, baterako ikaskuntza eta politiken elkarrizketa kontuan hartu behar dira modu horizontalean, 2030 Agendak dakarren garapen-agendaren unibertsaltasunarekin bat etorritik. Garapenak herrialde guztiak interpelatzen dituela aitortzen du, Iparrekoak edo Hegokoak izan. Egiturazko asimetriak eta bakoitzaren erantzukizunak eta gaitasunak aitortzeari utzi gabe, Hegoko herrialdeetan aldaketak egitea ere ekartzen du garapenak. Era horretan, lankidetzaren estrategia dibertsifikatuagoak txerta daitezke zenbait urtetarako planean, ohiko Iparra-Hegoa estrategiak ez ezik garapenaren egoerak ere jorratzen dituztenak.

### **Aurrekontu-konpromisoa eta harremanak**

- *Errenta nazional gordinaren % 0,7 GLOra bideratzeko konpromisoa*. Eusko Legebiltzarraren aurrekontu-eskumenen kalterik gabe, zenbait urtetarako plangintza adierazgarria jaso beharko litzateke planean eta, hala, lankidetzara bideratzea aurreikusten den baliabideak finkatu. Modu horretan, EAEren konpromisoa estatuaren eta beste autonomia-erkidego batzuen aurrean berretsiko litzateke, gai horri estatuko legean (1/2023 Legea) xedaturiko garapen jasangarrirako lankidetzaren biltzar sektorial berrian heltzen zaionean.

- *Presentzia aktiboa estatuko legean (1/2023 Legea) xedaturiko garapen jasangarrirako lankidetzaren biltzar sektorialean*. Aipatu den aurrekontuaz harago, biltzar horretan presentzia aktiboa edukiz heda daitezkeen estrategiak, lehentasunak eta jarduerak jaso daitezke zenbait urtetarako planean, koordinatu, ikasi eta esperientziak trukatzeko espazio gisa. Halaber, euskal lankidetzaren berezitasuna eta espezifikotasuna berresteko eta ikusgai egiteko balio dezake.

- *Europartzea*. Euskal lankidetzaren Europako lankidetzaren politikarekin elkarrizketan aritzea eta eragina izaten saiatzea garrantzitsua da, Garapenaren Europako Adostasuna aintzat hartuta<sup>24</sup>. Hartara, bere espezifikotasunak eta berezitasuna eskaini ditzake, eta tokiko-globala ikuspegitik zein lurralde-oinarriarekin egiten duen lana ere bai. Europako

---

<sup>24</sup> Garapenaren Europako Adostasunak garapen-politikaren ikuspegi erkidea ematen du Europar Batasunarentzat (EB) eta EBko herrialdeentzat. Datoren 15 urteotan, EBko erakunde eta herrialdeentzat gida izatea nahi du garabidean dauden herrialdeekiko lankidetzan, [Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda](#) eta [Klima Aldaketari buruzko Parisiko Akordioa](#) erdiesten laguntzeko eta, orobat, mundu mailako testuinguruan gertatzen diren beste aldaketa batzuei erantzuteko. Adostasun berriarekin, garapen-politikaren helburu nagusia [pobrezia desagertzea](#) da oraindik ere. Alabaina, [garapen jasangarriaren](#) alderdi ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak batzen ditu, eta garapenaren eta beste politika batzuen arteko loturak nabarmentzen, bakea, segurtasuna, [laguntza humanitarioa](#), migrazioa eta klima barne.

dimentsioa zenbait urtetarako planean txerta daiteke, eta jarduera-eremuren batean sinergiak egon al daitezkeen esploratu.

### **Planteamendu espezifikoak: sustatu beharko liratekeen aldaketak**

- *Hizkera bateratua erabiltzea, 3/2024 Legeari jarraitzen diona, eta lehentasunak eta jarduera-ardatzak berrantolatzea.* Lege horrek ikuspegi, estrategia edo ekintza-ardatz batzuk sinplifikatu eta bateratzeko aukera ematen du. Azken urteotako lanaren legatua jasota da planteamenduan, baina sustatu beharreko lan-ildoak sinplifikatzen eta antolatzen ditu. Alde batetik, Legeak lehentasunezko ikuspegiak proposatzen ditu. IV. Gida Planak, beste aldetik, jarduera estrategikoko ardatz gisa planteatzen ditu, baina gauza bera lantzen da azken batean. Legeak ikuspegi hauek proposatzen ditu: giza eskubideen ikuspegia, ikuspegi feminista, tokikoa-globala ikuspegia, ikuspegi ekosoziala, lurralde-oinarriko ikuspegia eta politiken koherentziaren ikuspegia. Hala ere, jarduera estrategikoko ardatz gisa ageri dira IV. Gida Planean. Bestalde, Legeak ikuspegi feminista dakar, eta IV. Gida Planean, aldiz, genero gisa heltzen zaio. Ikuspegi ekosoziala ez da IV. Gida Planean agertzen. IV. Gida Planean, halaber, honako jarduera-ardatz estrategiko hauek ere badaude: Afrika, gatazkak eta beste indarkeria egoera batzuk, eta ezagutza eta ikaskuntza sortzea. Lehentasun geografiko eta sektorialen konbinazio horrek nahastea eragiten du.

Gainera, selektiboagoa izatea komeni ote den hausnartu beharko litzateke, funtsak hainbeste herrialdek jaso beharrean, oso zenbateko txikiakin. Oso garrantzitsua izango litzateke babesten diren prozesuak eta erakundeen arteko harremanak aztertzea, herrialde kopurua txikiagoa izatea egokia den edo ez ikusteko.

- *Berdintasunerako agendan aurrera egitea, lankidetzak feministarantz.* 3/2024 Legeak ikuspegi feminista proposatzen du, eta IV. Gida Planak, bere aldetik, berdintasunerako agenda bat planteatzen du, nahiz eta erakunde feministak babestea jasotzen duen. Genero-berdintasunaren aldeko lanaz harago joatea da kontua, eta genero-desparekotasuna oinarritzen den erakunde- eta lege-mekanismoak edo egitura sozialak gainditzea. Lankidetzak feministak emakumeen agentzia sustatzea bilatzen du, egiturazko aldaketaren subjektu diren aldetik. IV. Gida Planean ez da argi aipatzen, baina feministatzat jo daitezkeen ekintzak garatzen eta prozesuak sustatzen ditu. Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna eta emakumeen ahalduntzea erakunde feministak babestearekin konbinatzen du, eraldaketa sozialaren eragile diren neurrian. Gainera, erakundeetan genero-berdintasunaren aldeko aldaketak egiteko tresna bat dauka.

Legean ikuspegi feminista dago, ikuskera intersektionalarekin, eta, horrenbestez, helburua ikuspegi hori zeharkakoa izatea da, IV. Gida Planean ez da-eta jasotzen.

- *Gatazken eta beste indarkeria-egoera batzuen ikuspegia berriz definitzea.* Gatazken ikuspegia gainditu eta arreta bakegintzan jartzea gomendatzen da, zabalagoa delako eta, halaber, prozesu eta neurri nabariak hartzen dituelako barnean, indarkeria gainditu eta berradiskidetzeko, justizia trantsizionaleko eta garapen jasangarriko prozesuak abiarazteko aukerak ematen dituztenak. Lotura hirukoitza esplora daiteke: ekintza humanitarioa, bakegintza eta garapena.

- *Tokiko demokrazian sakontzea,* lurralde-oinarriaren eta tokikoa-globala ikuspegiaren barruan. Tokiko boterea zabaltzea argi eta garbi demokratikoa den definizio batekin, eragile sozialak eta erakundeetakoak egituratuz, maila askoko aliantzak bultzatuz eta Hegoko erakunde sozialentzat espazio zibikoa eta lege-esparrua gorde eta handitzeko beharra jorratuz, gai giltzarri gisa. Bestalde, tokikoa-globala ikuspegia sustatzea da kontua, tokiko prozesuei eta mundu mailako planoan egituratzeari begiratuz.

- *Ingurumenaren alderdian sakontzea*. Garapen-prozesuetako ingurumen-eragina txertatzea, gutxi garaturik baitator IV. Gida Planean eta Legean, eta zeharka heldu behar litzaioke.

- *Eredu irekiago eta malguago batera eraginkortasunez igarotzea (tresnak eta prozedurak sinplifikatzea)*. Nazioarteko testuinguruan eta lankidetzaren eta elkartasun-programak dauden herrialdeetan gertatzen diren aldaketetara egokitu behar da. Zenbait prozedura eta finantzazio-ildo oso konplexuak dira, eta, sarritan, ez dira tokian tokiko errealitateetara, herrialdeetako erakundeen ezaugarrietara eta lankidetzaren kontrako alderdietara egokitzen. Horregatik, tresna arinagoak, malguagoak eta errazagoak prestatzea dagokio, nazioarteko testuinguru aldakor baten beharretara egokiturik, zeinean krisi ugari dauden eta elkarren artean gainjartzen diren. Hala, hobeto erantzun ahalko zaie krisi horiei eta aurreikusten ez diren egoerei.

Gainera, testuinguru askotan demokrazia ahultzea mehatxu da oso lan baliotsua egiten duten erakunde sozialetarako: kriminalizatu eta jazarri egiten dituzte. Egoeraren jarraipena egitea eta tresna malguak izatea oso garrantzitsua izango da. Tresna horiek erakundeak eta pertsonak babesteko aukera eman behar dute, eta, egiten den lana zaintzen dela bermatzeaz gain, lanean jarraitzeko baldintza egokiak daudela ziurtatu beharko lukete. Horrelakoetan, babes politikoa funtsezkoa da.

## 5. 2024-2018 ALDIKO MUGARRI NAGUSIAK

Taula honetan, 2018-2024 aldian erdietsitako mugarrak laburrean jaso ditugu. Laburpena egiteko, lankidetzaren eragileek galdetegietan adierazitako iritziak, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluarekin eta eLankidetzarekin egindako tailerren intsumoak, prozesu-matrizeko elementuak eta, azkenik, adituak egindako dokumentua hartu ditugu erreferentziatzat, nagusiki.

- **Lankidetzaren deszentralizatuari balioa ematea**
  - Lankidetzaren deszentralizatuaren nortasuna sendotzea, euskal lankidetzaren bereziki.
  - Lankidetzaren deszentralizatuari buruzko urteko txostenak egitea.
- **Aurrerapauso nabarmenak arauzko esparruan eta plangintzan**
  - Lankidetzari eta elkartasunari buruzko 3/2024 Legea onartzea.
  - Lankidetzaren dirulaguntzen inguruan duen espezifikotasuna aitortzea.
  - Programen (PGM) tresna berriaren onartzea.
  - Plangintza sektorialak zehaztea eLankidetzan: ekintza humanitarioa, gizarte-eraldaketarako hezkuntza, genero-berdintasunaren aldeko ekintzak, giza eskubideak defendatzen dituztenak babestea eta Afrika.
- **Aurrekontuaren egonkortasuna**
  - 2018-2024 aldian, lankidetzaren aurrekontua handitzea modu jarraituan, baina % 0,7tik urrun dago oraindik.
  - Aurrekontu-erreserbak betetzea (ekintza positiboak): emakume ahalduentzea, Hegoaldeko erakunde feministak, babesa, gatazkak, Afrika eta Euskadi.
- **Aurrerapausoak koherentzian eta koordinazioan**
  - Garapenerako politiken koherentziari dagokion lana bultzatzea, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin egituratuta.
  - Ekimenak zehaztea lankidetzaren teknikoaren elementu garrantzitsuekin, zeinetan Eusko Jaurlaritzako langileek parte hartzen duten.
  - Euskadiko lankidetzaren arloan, erakundearen arteko koordinazioa indartzea eta baterako ekimenak zein lan-espazioak sustatzea.
  - Eragile askoko espazioak bultzatzea (Kolonbia mahaia kasurako), lankidetzaren sektoreko eragile berriak sar daitezkeenak.
- **Lehenetsun estrategikoak sendotzea**
  - Lehenetsun sektoriala: emakumeak ahalduentzea eta giza eskubideen defendatzaileak babestea.
  - Lehenetsun geografikoa: Afrika, eta gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk.
  - Zeharkako lehenetsuna: giza eskubideak, generoa eta tokikoa-globala.
- **Ezagutza sortzearen, gardentasunaren eta komunikazioaren aldeko apustua**
  - eLankidetzaren trebakuntzarako eta esperientziak trukatzeko espazioak sustatzea, gaitasunak indartu eta sinergiak sortzeko.
  - eLankidetzaren bultzatutako ebaluazioak, sistematizazioak eta ikerlanak garatzea.
  - eLankidetzaren komunikazio-estrategia bultzatzea.

- Gardentasunaren alde egitea, eLankidetzaren urteko memorien bidez, hedabideetan eta sare sozialetan agertuz edota eLankidetzaren webgunea berrituz.

- **eLankidetzaren sendotzea**

- eLankidetzako plantilla handitu eta sendotzea.
- eLankidetzari atxikitako langileen konpromisoa eta kualifikazioa.
- Harreman gehiago Euskadiko, beste autonomia-erkidego batzuetako, estatuko, Europako eta nazioarteko lankidetzaren erakundeekin.
- Laguntza ematen den prozesu eta testuinguruez jabetzea neurri handiagoan.
- Izapidetze elektronikoa sendotzea.

## 6. HURRENGO PLANGINTZALDIRAKO IKASKUNTZAK ETA ERRONKAK

Atal honetan, 2018-2024 aldiko IV. Gida Planaren azken ebaluazioan ateratako ondorioak aurkeztuko ditugu. Ikaskuntza eta erronken ikuspegitik atera dira ondorioak, eta etorkizunari begira. Hala, eLankidetzaren hurrengo plangintzaren diseinua gidatu eta erraztea da helburua, bai eta 3/2024 Legearen esparruan inplementatzea ere. Aipatzekoa da ezen, eLankidetzaren plangintzari heldu ez ezik, EAEko sektore publikoaren zenbait urtetarako plangintza ere zehaztu beharko dela laster, 3/2024 Legean xedatzen denari jarraituz.

Ondorioak antolatzeko orduan, hiru ataletan multzokatu ditugu: (i) zenbait urtetarako hurrengo plangintzaren diseinua eta ebaluagarritasuna hobetzeko gomendioak; (ii) kudeaketarekin lotutako ikaskuntza, etorkizuneko planaren hedapena erraztu edo oztopa dezakeena; eta (iii) hurrengo plangintzaldian heldu beharko litzaiekeen erronkak.

Atal hau bideratzeko, lankidetzaren eragileek galdetegietan adierazitako iritziak, eLankidetzarekin eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluarekin egindako tailerren intsumoak, adituak egindako dokumentua eta, azkenik, IV. Gida Planaren bitarteko ebaluazioko ikaskuntzen eta erronken atala hartu ditugu erreferentziazat.

### 6.1 DISEINUA ETA EBALUAGARRITASUNA

---

IV. Gida Planaren ebaluazio-prozesuak diseinuarekin eta ebaluagarritasunarekin zerikusia duten gaiak heltzeko aukera eman digu, arlo horretan hobetzeko gomendioak identifikatzeko asmoz, hurrengo plangintzari begira. Hona hemen gomendio nagusiak:

- **Aurrerapausoak ematea lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuen definizioan.** 3/2024 Legeak helburu zabalak planteatzen ditu lankidetzari eta elkartasunari dagokienez. Esparru horretan, Eusko Jaurlaritzaren osoak eta eLankidetzak bereziki lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak eta erdiespena neurtzeko mekanismoak zehaztu behar dituzte, beren plangintzetan jasotzeko xedez. Politikaren helburuak zehazteko prozesuak lotura estua du euskal lankidetzaren balio bereizgarriari buruzko gogoetarekin, baita euskal lankidetzak egin nahi dituen apustuen zehaztasunarekin ere.
- **Elkarrizketa-prozesua egitea lankidetzarako eta elkartasunerako politikarekin zerikusia duten erronkei buruz.** Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak definitu aurretik, gogoeta- eta elkarrizketa-prozesu bat egin behar da, azken urteotan egiteko gelditu diren eztabaidak eta 3/2024 Legeak dakartzan erronkak direla eta. Elkarrizketa-prozesu horretatik ateratzen diren ondorioetan oinarrituta definituko dira eLankidetzaren lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak.
- **Partaidetzazko plangintza-prozesu bat bermatzea, Hegoko ahotsak sartuz.** Hurrengo plangintzaren definizioan, kontsultako eta baterako laneko prozesu bat egitea egoki ikusten da, lankidetzarako eta elkartasunerako politikan dabilzan eragileekin. Hegoko ahotsak arreta berezia merezi dute, noizean behin egiten baitaie kontsulta, esku artean dugun ebaluazioan bezalaxe, hain zuzen. Hari horretatik, Hegoko ekarpenak eta ikuspegiak modu sendoagoan gehitzeko mekanismo egokiak sortu eta inplementatu behar dira.

- **Aldaketaren teoriaren metodologia esploratzea.** Lankidetzarako eta elkartasunerako politikak bultzatu nahi duen aldaketaren azpiko logikak hobeto garatu behar dira. Horretarako, aldaketaren teoria esploratzea interesgarria izango da lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak definitzeko prozesuan eta zenbait urtetarako plangintzetan, plangintza- eta ebaluazio-tresna bat den neurrian.
- **Aurrerapausoak ematea lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren oinarrizko ildoak zehazteko lanean.** Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren oinarrizko ildoak eraikitzea prozesu konplexua da. Ebaluazio honekin, konplexutasun horri dimentsioa eman ahal izan diogu, eta hasierako hurbilketa bat egin ahal izango dugu politikaren irismenari buruzko datu kuantitatibo eta kualitatiboetara, ikuspegi positibotik begiratuta. Horiek horrela, eta lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak definitzen diren bitartean, oinarrizko ildoak ere zehaztu behar da.
- **Jarraipen-matrize eta adierazle-multzo errealista zehaztea.** Ebaluazio-prozesu honetan ikasi da, besteak beste, oso konplexua dela adierazle multzo zabal bati erantzutea. Zenbait kasutan, gainera, ez zegoen argi zer neurtu nahi genuen eta zertarako. Horregatik, adierazle kopuru mugatua eta errealista zehaztu behar da, lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren irismena neurtzen benetan lagunduko diguna.
- **Adierazle multzoaren jarraipena egiteko eta datuak biltzeko sistema definitzea.** Adierazle multzoa mugatu ez ezik, jarraipena egin eta datuak biltzeko sistema ere finkatu behar da: bitartekoak, kanalak eta arduradunak. Sistema hori lankidetzaren eguneroko lanean sartuta egon behar da, datuak modu jarraitu eta sistematizatuan ateratzen joateko.
- **3/2024 Legeko hizkera darabilen plangintza zehaztea, eta ikuspegiak, lehentasunak eta jarduera-ardatzak berrantolatzea.** 3/2024 Legea aukera bat da, batetik, hurrengo plangintzan hizkera bera erabiltzeko eta, bestetik, hurrengo planean ikuspegiak, lehentasunak (sektorialak, geografikoak eta zeharkakoak) eta jarduera estrategikoko ardatzak sinplifikatu, argitu eta antolatzeko. Era berean, AUZO(LAN)KIDEAK ekimenaren etorkizuneko planteamendua zehaztu behar da hurrengo plangintzan, bai eta IV. Gida Planean jasotako eremu estrategikoen aldeko apustua ere.
- **Plangintza modu estrategiko eta errealistan egitea, lehentasunak finkaturik.** Ebaluazio honen eraginez ikasi dugu plangintzan errealistak izatea garrantzitsua dela, jarduera-ildo bakoitza garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak, pertsonak eta denbora kontuan izanda. Zenbaitetan, anbizioaren eta gaitasun instalatuen arteko oreka lortzea zaila da. Horregatik, plangintza modu errealistan egitea eta lehentasunak ezartzen ikastea ezinbestekoa da.
- **Zenbait urtetarako plangintzak garatzea aldi luzeagoetarako.** Azken urteotako esperientziak agerian utzi du lau urtetik gorako plangintzak egin behar direla. Batetik, lau urte ez da nahikoa nahi diren erdiespenak zehaztu eta neurtzeko, eta bestetik, lau urteko plan baten benetako egikaritzeak hiru urte irauten du, hasierako definizio-prozesua eta amaierako ebaluazio-prozesua kontuan hartuta.
- **Plangintzak modu koherentean egituratzea.** Lankidetzari eta elkartasunari buruzko zenbait urtetarako plangintzaren dokumentuak modu koherentean egituratu behar dira. Dokumentuen osagarritasuna, indarraldia eta, orobat, elkarren arteko hierarkia argi egon behar dira. Alde batetik, EAEko sektore publikoaren etorkizuneko plangintzaren eta lankidetzaren zenbait urtetarako plangintzaren arteko

osagarritasuna dago. Eta beste aldetik, eLankidetzaren plangintzaren eta eLankidetzaren plangintza sektorialen arteko osagarritasuna dago. Hartara, eLankidetzaren zenbait urtetarako hurrengo planean, prestatzen den unean dauden plangintzak atzera hartu beharko dira, eta gauzatzen den epean egin beharreko plangintzak aurreikusi, nola sartu edo erreferentziak nola egin finkatzeko. Bestalde, EAEko sektore publikoko gainerako administrazioekiko koherentzian, koordinazioan eta osagarritasunean sakondu beharko da.

- **Malgutasunaren printzipioa plangintzetan jasotzea.** Eredu irekiago eta malguago batera igarotzea egokitzat jotzen da, testuinguruetan gertatzen diren aldaketetara egokitu ahal izateko. Ebaluatu den aldian ikasi dugu ustekabeei heltzeko malgutasuna eskatzen dutela krisiek, ikusirik zer gertatu zen COVID-19aren ondoriozko pandemian eta nolakoak diren gatazkak eta testuinguru desafiatzaileak laguntza ematen dugun lurraldeetako batzuetan. Hortaz, plangintzetan adierazi behar da oreka bilatuko dela lankidetzarako eta elkartasunerako politika gauzatzeko orduan, krisiei aurre egitean malgutasuna behar delako, sor daitezkeen aukerei probetxu ateratzeko eta plangintzako ekintzak betetzeko aldi berean.

## 6.2 KUDEAKETA ETA PLANGINTZAREN HEDAPENA

---

Bitarteko nahiz amaierako ebaluazioaren prozesuan elementu erraztaileak eta elementu mugatzaileak detektatu ditugu, IV. Gida Planaren inplementazioa modu positiboan edo negatiboan baldintzatu dutenak, hurrenez hurren. Jarraian, etorkizunari begiraturik, hainbat gomendio jasoko ditugu plangintzaren kudeaketaren eta hedapenaren harira, hurrengo planaren inplementazioan lagungarriak izan daitezkeelakoan.

- **3/2024 Legea palanka gisa erabiltzea.** Plangintza berria 3/2024 Legearen esparruan garatuko da, eta, hartan, lankidetzaren eta elkartasunerako politika inplementatzen eta hedatzen ezbairik gabe lagunduko duten elementuak eta aginduak datoz. Esate baterako, gai hauen ingurukoak xedatzen dira lege-testu horretan: garapen jasangarrirako politiken koherentzia bultzatzea, eragileen arteko erantzunkidetasuna, baliabide-zuzkidura egitea (% 0,7), gizarte-eraldaketarako hezkuntza curriculum formalean txertatzea, komunikazio-ekintzak zehaztea giza eskubideen defendatzaileak babesteari begira, edota dirulaguntzen espezifikotasuna aitortzea lankidetzaren eta elkartasunaren eremuan.
- **Plana ezagutarazteko eta norberarena dela sentiarazteko apustua.** Plangintzaren hedapena eraginkorra izan dadin, ezaguna izan behar da eta dei egiten dien eragileek euren dela sentitu behar dute. Sentimendu hori garrantzitsua da eLankidetzaren baitan ere. Horregatik, oso garrantzitsua da partaidetzazko plangintza-prozesuekin, eraikuntza kolektiboko espazioekin eta, geroago, Plana aurkeztu eta jarraipena egiteko espazioekin jarraitzea.
- **Lankidetzaren eragileak zaintzea, sendotzea eta harreman berriak sortzea.** IV. Gida Planaren apustu estrategikoetako bat eragileen arteko lan egituratua da, bai eta eragileen erantzunkidetasuna sustatzea ere, politikaren irismena handitzeko. 3/2024 Legea ikusirik, apustu hori hurrengo planean ere egongo da. Alde horretatik, lankidetzaren eta elkartasunaren euskal ekosistemako eragile egituratzaile den neurrian, ezinbestekoa da eLankidetzaren politikan diharduten eragileekiko (GGKE-ekin bereziki) harremanak sendotzen jarraitzea eta, halaber, harreman berriak sortzea. Hori guztia mesedegarria izango da lankidetzaren eta elkartasunaren euskal ekosistema sendotzeko.

- **Ekintza estrategikoen lidergo politikoa zehaztea.** AUZO(LAN)KIDEAK bideratzeak frogatu du lidergoak argitu eta zehaztea oso garrantzitsua dela ekimen horiek abiarazi eta sendotzeko. Helburu eta lidergo argiak eta bulkada politiko irmoa zuten AUZO(LAN)KIDEAK ekimenek aurrerapauso nabariak eman dituzte. Haatik, lidergoa eLankidetzarena ez denean edo zer erdietsi nahi den guztiz argi ez dagoenean, aurrerapena txikiagoa izan da edo ez da aurreikusitako neurrian aurrera egin. Esperientzia horrek lidergo politikoa zehaztea, argitzea eta edukitzea ezinbestekoa dela erakutsi digu, edozein ekintza estrategiko bultzatuko badugu.
- **Lidergo, erantzukizun eta talde argiak finkatzea eLankidetzan, plangintzaren jarduera nagusietarako.** IV. Gida Planaren esparruan liderrak (eta taldea, hala zegokionean) izan dituzten, ongi definituta zeuden eta proaktiboak ziren jarduerak lortu dute erdiespenik handiena. Ostera, erantzukizunak, funtzioak eta zereginak argi ez zeuden jarduerak ez dute nabarmen aurrera egin. Hori dela eta, plangintza berriari dagokionez, jarduera-ildoan lidergoak, erantzukizunak eta taldeak zehaztu beharko dira eLankidetzan.
- **eLankidetzako taldeen egituratze hobea sustatzea.** Plangintza bultzatzea eLankidetzara osoari dagokio. Beraz, eLankidetzako zerbitzuen modu egituratuagoan lan egin behar dute. Era berean, eLankidetzako jendea eta taldeak trebatzearen alde egin behar da, bakoitzak zer funtzio eta zeregin dituen.
- **Ziurgabetasuna kudeatzen ikastea.** IV. Gida Planak egiteko modu berriak bultzatu, eragileak eta askotariko gaitasunak egituratu eta agerikoak ez ziren konexioak edo harremanak sortzea bilatu du. 3/2024 Legeak apustu hori indartzen du, eta, azken urteotako esperientziaren ostean, ziurgabetasuna dakarrela badakigu, ezohikoak diren harremanak edo egiteko moduak landu behar direnean. Hala, ezinegona edo pazientziarik eza ager daitezke. Hortaz, ziurgabetasuna kudeatzen ikastea eta aurrera egiten laguntzen duten mugarri erkideak zehaztea komeni da.
- **Desadostasunei aurre egitea eta eztabaidak ez atzeratzea.** IV. Gida Plana inplementatu ahala, desadostasuna eta kontrako jarrerak dakartzaten gaiei buruzko eztabaida atzeratu dugu, eLankidetzaren barruan eta lankidetzara eta elkartasunaren sektorean bertan: eragile ekonomikoek politikan parte hartzea, tokikoa-globala ikuspegiaren irismena, etab. Hurrengo planari begira, hedapena hobea dela ziurtatzeko, eztabaida horiei aurre egitea egoki ikusten da, eta gai horien inguruko baterako ikuspegi bat edo ikuspegi ahalik eta partekatuenara eraikitzea.
- **Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuei erantzuten dieten tresnak definitzea.** Lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren helburuak zenbait urtetarako plangintzan jaso behar dira, eta horiek hedatu ahal izateko, lagungarri izango diren tresnak definitu behar dira. 2018-2024 aldian, tresna batzuk berrikusi dira edo berrikuspina abiarazi da: esate baterako, ekintza humanitarioa (PRE eta EHE), programak (PGM) eta proiektuak (PRO). Finantza-lankidetzara ere esploratu egin da. Datozen urteotan ere berrikusten jarraitu behar da eta tresnen araudia eguneratu behar da, politikaren helburuei eta apustu estrategikoei erantzun diezaieten. Eta, egokitzen jotzen bada, tresna berriak sortu beharko dira.
- **Lankidetzarako eta elkartasunerako politika baliabide ekonomikoz hornitzea.** Mundu mailako justiziaren, elkartasunaren eta gizarte-eraldaketaren aldeko apustu politikoa eta estrategikoa eraginkortasunez zehazteko modu bakarra

lankidetzarako eta elkartasunerako politika baliabide ekonomiko nabarmenez hornitzea da. 3/2024 Legeak konpromiso argia xedatzen du ildo horretan, eta zehaztu egin beharko da.

## 6.3 ETORKIZUNARI BEGIRA: ERRONKAK

---

IV. Gida Planaren azken ebaluazioaren prozesuan, hurbileko etorkizunari begira jarri gara datozen urteotan jorratu beharreko erronkak identifikatzeko asmoarekin.

Orain, kontsulta egin zaien eragileek (galdetegien bidez eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluarekin zein eLankidetzarekin egindako tailerretan) identifikatu dituzten erronka nagusien berri emango dugu, baita ebaluazio honetan kanpotik begiratu duen adituak identifikatu dituenak ere.

- **3/2024 Legea hedatzea.** 3/2024 Legea onartzea oso mugari garrantzitsua izan da 2018-2024 aldirian, eta orain, erronka lege hori hedatu eta inplementatzea da. Horretarako, legearen berri eman eta pedagogia egiteari egoki irizten zaio, hartan dei egiten zaien eragileen artean. Hurrengo puntuetan 3/2024 Legearekin zuzenean lotuta dauden zenbait erronka jaso ditugu modu zehatzagoan.
- **Politika hedatzeko behar diren baliabideen zuzkidura betetzea (% 0,7).** 3/2024 Legeak konpromiso argia finkatzen du % 0,7arekin, lankidetzara eta elkartasunerako politika hedatzeko beharrezko baldintza gisa.
- **Aurrera egitea Eusko Jaurlaritzaren garapen jasangarrirako politiken koherentzia.** 2018-2024 aldiriko garapen jasangarrirako politiken koherentzia egindako aurrerapenak abiapuntutzat hartuta, osagarritasun-, koordinazio- eta koherentzia-ekintzak sustatzen eta indartzen jarraitu behar da Eusko Jaurlaritzaren barruan eta lankidetzara-eragileekin elkarrizketan. 3/2024 Legean xedatzen da Eusko Jaurlaritza osoaren zenbait urtetarako plangintza definitu behar dela lankidetzaren eta elkartasunaren harira, eta eLankidetzak aholku eman dezakeenez Hegoko herrialde eta lurraldeetan eragina eduki dezaketen Eusko Jaurlaritzaren plan eta jardueretan, mesedegarria izan daiteke koherentzia aurrerapausoak emateko.
- **Erakundeen arteko koordinazio handiagoa zehaztea.** Egoki ikusten da administrazio publikoen arteko egituratzea sustatzen jarraitzea udalerrietan, foru-aldundietan eta autonomia-erkidegoan, 2018-2024 aldirian erakundeen arteko koordinazioan egindako aurrerapen handietan oinarrituta, bai eta lankidetzarako Euskadiko erakunde publikoen artean sortutako konfiantzan eta baterako landinamiketara oinarrituta ere. Hari horretatik, interesgarria izan daiteke erakundeen arteko proiektu berriak zehaztea (*ad hoc* kudeaketa-tresna egokiek) eta Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakunde Arteko Batzordea indartzea, baterako lan-espazio politiko eta tekniko gisa.
- **Lankidetzarako eta elkartasunerako zer euskal ekosistema nahi dugun berriz pentsatzea.** Lankidetzarako eta elkartasunerako zer euskal ekosistema eta horren eragileak *zaharkituta* daudelako halako sentsazioa dago, eta horrek zer ekosistema nahi dugun berriz pentsatzera eta, hortaz, ekosistema indartzeko ekintzak egitera gonbidatzen gaitu. GGKE-ekin lotuta bereziki, finantza-jasangarritasuna eta lan-prekarietatea jorratu beharko lirake gogoeta horretan, besteak beste.

- **Lankidetzarako eta elkartasunerako politikan eragile berriak sartzeko lanean aurrera egitea eta, aldi berean, jada parte hartzen duten eragileekiko harremana sendotzea.** Mundu mailako erronkei heltzeak askotariko gaitasunak mugiaraztea dakar. 3/2024 legeak azken urteotako apustua indartzen du, hots, erantzunkidetasuna lantzea eta politikan askotariko eragileak sartzea: sozialak, hezkuntzakoak, akademikoak, ekonomikoak, sindikalak, etab. Eragile berriak sartzearekin batera, abian dauden aliantzak eta eragileekiko konfiantza-harremanak mantendu eta indartu behar dira, GGKE-ekin bereziki, zeinek politikan parte hartzen duten dagoeneko.
- **Zilegitasuna irabaztea euskal herritarren aurrean eta herritarrak mugiaraztea, gazteak bereziki.** Egiatzatu da euskal gizartea lankidetzaren eta elkartasunaren apustu eta balioetatik gero eta urrunago dagoela. Interesgarria izango litzateke pertzepzio hori inkesta edo azterlanen bitartez neurtzea. Nolanahi ere, Euskadin eraldaketarako hezkuntza baliatuz, euskal herritarren aurrean sektore gisa zilegitasuna irabazi behar da. Halaber, espiritu kritikoa sustatu behar da eta mugiarazten lagundu, mundu mailako justiziaren eta herrien arteko bizikidetzaren mesedetan. Arlo horretan, gazteekin lan egitea bereziki garrantzitsua da.
- **Euskal lankidetzak Europarekin eta nazioartearekin duen konexioa indartzea.** Euskal lankidetzak —eta, esparru horretan, eLankidetzak— lankidetzaren deszentralizatuaren eragile garrantzitsua dela eta intzidentzia-gaitasuna duela aitortzen da, Espainiako estatuan bereziki. Eremu geografiko horretaz haraindi, eta jakinik mundu mailako erronkei aurre egiteak egituratzea eta askotariko eragileek ahaleginak batzea dakarrela, garrantzitsua da eLankidetzak Europako eta nazioarteko elkarrizketetan eta erabakiak hartzeko espazioetan parte hartzea, lankidetzarekin lotuta dauden aldetik.
- **Ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketa sustatu eta ebaluazioaren kultura bultzatzea.** Irismen handiagoko lankidetzaren estrategiko baterantz aurrera egiteko, erabaki informatuak hartzeko edota jarduerak hobetzeko, aurrera egin behar dugu ezagutzaren eta ikaskuntzaren kudeaketan eta ebaluazio-kulturaren sustapenean, lankidetzaren eta elkartasunaren eremuan. IV. Gida Planak zekarren apustu hori berretsi egiten du 3/2024 Legeak eta, 2018-2024 aldian aurrerapausoak eman diren arren, hobetzeko tarte handia dago oraindik.
- **Tresnak sakonki berrikustea.** Aurreko atalean aipatu da definitu beharreko tresnek helburuei erantzun behar dietela, lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren ondoriozko helburuei, alegia. Gainera, definizio-prozesu horretan, tresnak malguak izan behar direla uste da, laguntza ematen den testuinguru eta krisietara egokitzeko. Bestalde, konfiantzan oinarritu behar dira, eta lankidetzaren eragileen lana ahalbidetu behar dute epe ertain eta luzera. Halaber, puntu honetan garrantzitsutzat jotzen da pertsonekin lotutako tresnak sustatzea eta eLankidetzaren zuzeneko lankidetzaren gidatuko duten irizpideak zehaztea, bai eta finantza-lankidetzaren aldeko apustuan aurrera egiten jarraitzea ere.
- **Kudeaketa-prozedurak desburokratizatzea, sinplifikatzea eta arintzea, eta dirulaguntzen araubidea lankidetzaren espezifikotasunera egokitzea.** Lankidetzaren politikaren hedapena eta zerikusia duten eragileen ekintza mugatuta dago diruz lagundutako ekimenen kudeaketak duen karga administratiboagatik. Horregatik, kudeaketa-prozedurak hobetu eta arintzeko aurrera egin behar da, eta sinplifikazio burokratikoaren alde egin. Era berean, araudia lankidetzaren espezifikotasunera egokitu behar da 3/2024 Legean eta dirulaguntzen araubidea erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean adierazten den bezala.

- **3/2024 Legean planteatzen diren ikuspegien esanahia eta irismena garatzea.** 3/2024 Legeak xedatzen du lankidetzarako eta elkartasunerako politika ikuspegi hauen bitartez gauzatuko dela: giza eskubideena, ikuspegi feminista, tokikoa-globala, ekosoziala, lurralde-oinarrikoa eta garapenerako politiken koherentziarena. eLankidetzak IV. Gida Planeko jardura estrategikoko ardatzei, zeharkako lehentasunei eta apustu sektorialeiei buruz duen ezagutza eta eskarmentua abiapuntu gisa hartuta (zeinak ikuspegiekin erlazionatzen diren nolabait), 3/2024 Legeak planteatzen dituen ikuspegien esanahiaz eta irismenez hausnartzea dagokio.
- **IV. Gida Planeko apustu sektorialen planteamendua eta irismena berrikustea.** Ebaluazioan egiaztatu da IV. Gida Planeko apustu sektorialekin jarraitzea egokia dela: emakumeak ahalduntzea, giza eskubideen defendatzaileak babestea, eta gatazkak eta beste indarkeria-egoera batzuk. Hala ere, sakontasun edo irismen handiagoa eman dakiekeela uste da. Beraz, babesaz harago, giza eskubideen inguruko lana beste eremu batzuetara zabaldu daitekeela uste da; adibidez, justizia trantsizionalera edo herri indigenentzako laguntzara. Orobat, gatazken ikuspegitik abordatzera igaro daiteke, lotura hirukoitzarekin bat (ekintza humanitarioa, garapena eta bakea), eta, emakumeak ahalduntzearen eta genero-zeharkakotasunaren aldeko apustutik lankidetzara feministara pasatu daiteke.
- **Ingurumeneko lanaren aldeko apustua eta klima-aldaketari aurre egitea.** Adierazitakoaz gain, indar handia du ingurumeneko lanaren aldeko apustua egin eta klima-aldaketari aurre egiteko beharrak, osotasun eta eragin guztiekin landu ere: ekonomikoak, sozialak, desparekotasunak, indarkeriak eta lekualdaketak, etab. Hain zuzen ere, 3/2024 Legeak dakarren ikuspegi ekosozialarekin zerikusia du horrek.

## **7. ERANSKINAK**

- 1. eranskina. 2018-2023 aldian emandako ekimenak**
- 1b eranskina. 2024an emandako ekimenak**
- 2. eranskina. Prozesu-matrizea eta lehenetsitako adierazle kuantitatiboak**
- 3. eranskina. Ekintzen katalogoa, garapen jasangarrirako politiken koherentziatik abiatuta**